



ARGIA

BURDIN AROA

Nolakoa zen Euskal Herria duela 2.100 urte?

28-33. orrialdeak

#2.807 | 2022 / 12 / 31 | 4,00 €



**AHT-k kamioi
gutxi aterako du
errepidetik**

36 | EUSKAL Y



**40 urtez idazleei
zabalkundea
eskaintzen**

44 | MAIATZ



LARRUN #280
Sistematik eta gu



SENDABELAR BARATZEA

Garbiñe Larrearen liburu berria

Sendatzeko baratzea lantzeko proposamena egiten dizugu liburu biribil honekin.

Hasberrientzat zaintzen lan handirik emango ez diguten hamabi sendabelarren baliabide terapeutiko, kosmetiko eta gastronomikoak ekarri ditugu orri hauetara.

Izan ere, geure beharretara egokitzen diren sendabelarrak landuz gero, osasuntsu egoteko behar ditugun erremedioak presta ditzakegu.

Sendabelar baratzea lur sail batean zein etxeko lorontzian egin dezakegu.

Orrialde kop.: 40 **Neurria:** 22 cm (diametroa)

Prezioa 14,00 €

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ILUSTRAZIOA: **XABIER SAGASTA**

Iritziak

- 23 | ANA MENDIA
- 24 | AMANCAY GAZTAÑAGA
- 25 | MIKEL BASABE
- 25 | EDU ZELAIETA
- 26 | ROSER ESPELT
- 27 | ZIGOR OLABARRIA

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
CARLOS PEREZ ARMIÑO
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

ATSEDEAN HARTUKO DUGU ASTEBETEZ. Opor astea egingo du erredakzioak eta beraz, hurrengo astean ez da astekaririk izango. Hurrena jasoko duzun astekariak data hau eramango du: urtarrilak 15.



HEMIS

14 | ENERGIA BERRIZTAGARRIAK: DESAZKUNDEA EZINBESTEKO

Nicolas Goñik Net Hurbil honetan azaldu du aurrera begira dugun erroka handienetako bat. Energia berriztagarriek ezingo dute fosiletan dugun kontsumo guztia ordezkatu, eta beraz, kontsumoa gutxitzea behartuta egongo gara.

Elkarrizketak eta erreportajeak

14 | NET HURBIL

Energia berriztagarrien garatzeko baliabide eskasiak desazkundera behartzen gaitu

Nicolas Goñi

18 | PERTSONAIA | E. ARANGUREN

“Iraultza ateo deklaratu zenean, orduantxe aldaketa gure etxean”

Miel A. Elustondo

28 | ARKEOLOGIA | BURDIN AROA

Bidaia bat protohistoriako Euskal Herrian barrena

Josu Narbarte

34 | GIZARTEA

Euskal Y-ak ez du lagunduko kamioia errepidetik trenbidera eramaten

Xabier Letona

44 | KULTURA | MAIATZEK 40 URTE

Terra nullius-ean loraturiko literatura

Jenofa Berhokoirigoin

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Lide Iraola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



KOMUNIKAZIO GRAFIKOA




software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Sinesmina

Erligio orok bi ekingta ditu ezinbesteko: asmatzea eta sinestea. Testu "sakratuak" oso interes mundutarrak dauzkaten gizonak idatzi eta ziklikoki eguneratzen dituzte. Jainkoa existitzen da, bai, gizakiak asmatu duen heinean, Bibliako edo Koraneko ipuinak eta fabulak sakratu eta ia lege bihurtu dituen gisan. Lau pertsonatik hiruk baino gehiagok goi-izaki etereo batean sinesten duten mundu honetan, erlijioek gizakiaren asmatzunik onena izaten jarraitzen dute hurkoa kontrolatzeko eta ingurua norberaren nahiaren arabera eraldatzeko.

📹 Munduan musulman gehien dituen herrialdeak, Indonesiak, bere Zigor Kodea "gogortu" du, delitu gehiago gehitu, zigorrak handitu eta tokiko gobernuei "legeria propioa" ezartzeko erraztasuna eman die. Hau da, Xaria bezalako "jokabide-legeak" aplikatzeko ahalmena aitortzen du; Aceh probintzian gertatzen den bezala. Irudian: Acehko hiruburuan Xariaren Polizia emakume bat publikoki zigortzen, "gizon batengana gehiegi hurbiltzeagatik". **CHAIDEER MAHYUDDIN / GETTY IMAGES**

 **AXIER LOPEZ**





EHU: “Inork esan ez digun zerbait egitea litzateke” garun-paralisdun ikasleari laguntza jartzea

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Ez dugu ahalmen nahikoa behar bereziak dituzten pertsona guztiei arreta pertsonalizatua emateko, bizitza osoan zehar daukagun prestakuntza eskaintza guztia egin nahi badute”, dio EHUko errektore Eva Ferreirak, argudiatzeko zergatik ukatu dioten laguntzailea Noelia Da Costa garun-paralisdun ikasleari, egiten ari den graduondoan. Muinean, gaiaz galdetuta Ferreiraren erantzuna da Titulu Ofizialei laguntza hori badagokiela baina Berezko Tituluei ezetz, eta Da Costa egiten ari dena Berezko Titulua dela, EHUK eskaintzen duen arren.

**“Aurrekontuan,
gizarte gisa, ez dugu
erabaki bizitza osoko
prestakuntza ziurtatzea
laguntzaile batekin”**

Noelia Da Costa Reviriego gasteiztarak garun-paralisia du eta unibertsitatean laguntzaile bat behar du komunera joan, berokia erantzi edota ordenagailua mahaian jartzeko. EHUK, ordea, ukatu egin dio laguntzailea, egiten ari den graduondoko masterra ofiziala ez dela argudiatuta. Halaxe kontatu zigun due-

la hilabete inguru, eta gaineratu zuen ofiziala edo berezko graduondoan izan, araudiak dioela behar bereziak dituzten pertsonen beren eskubideak bermatu behar zaizkiela unibertsitatean dauden epe osoan “eta nik EHUKo ikasle izaten jarraitzen dut”.

“ERAKUNDE GISA, EZIN DIOGU HELDU ARAZOARI”

EHUKo Gizarte Kontseiluaren azken osoko bilkurara gaia eraman zuen Fernando Mijangos Kontseiluko kideak, “ARGIA elkarrizketa irakurri eta hunkituta”. Eva Ferreira unibertsitateko errektoreak berak hasierako argudioen ildotik erantzun du, titulua berezkoa dela arrazoituta, eta legearen gain jarri du erantzukizuna: “Legeetan jasotzen den goi mailako hezkuntza jasotzeko eskubidea titulu ofizialei dagokie beti eta unibertsitateak beste titulu batzuk ere eskaintzen ditu. Titulu ofizialetan laguntza eskaintzen dugu bekatik harago, materialen euskarritik eta laguntza pertsonalizatutik harago. Horretan erreferente gara. Berezko tituluetan, ez. Pertsona batek Esperientzia Geletan eskoletara joateko arazoak baditu, ezin dugu ziurtatu laguntza pertsonalizatu hori bizitza osoan zehar; izan ere, aurrekontuan, gizarte gisa, ez dugu erabaki bizitza osoko prestakuntza ziurtatzea laguntzaile batekin. Diru publikoarekin finantzatzen den unibertsitate publikoak laguntza per-

tsionalizatua bermatzen dio hala behar duen norbaiti, goi mailako hezkuntza maila hori izateko balio dioten titulazioetan. Ez dago ez Espainiako legeetan (titulazio ofizialetara mugatzen baita), ez Aldundiek laguntzak esleitzeko araudietan, ez Eusko Jaurlaritzak bekak esleitzeko hartzen dituen neurrietan. Gainerako guztia inork esan ez digun zerbait egitea litzateke. Ez dugu ahalmen nahikoa behar bereziak dituzten pertsona guztiei arreta pertsonalizatua emateko, bizitza osoan zehar daukagun prestakuntza eskaintza guztia egin nahi badute. Erakunde gisa, ezin diogu heldu arazoari. Gure gizarte planean enplegua lortzea ahalbidetzen duen prestakuntza hartzen dugu kontuan”.

Inklusio gaietan EHU erreferente dela ere nabarmendu du errektoreak: “Gure unibertsitatea erreferentzia da beste unibertsitate batzuen artean. Plan inklusio bat dugu, eta aurrean izango ditugu emaitzak, eta eskaintzen dugun laguntza begi bistan jarriko dugu”.

NOELIA DA COSTA: “PSIKOLOGIKOKI EZ DA BATERE ERRAZA ERAMATEN”

Bitartean, egoera berean jarraitzen du Noelia Da Costak, eta EHUK laguntzailea jartzen ez dionez, ama du laguntzaile. “Hein batean pozik nago, nahi dudana egiten ari naizelako eta ez dudalako atzera egin nire ametsak lortzeko bidean, baina azpimarratu nahi dut nire familiari esker izaten ari dela posible, eta baita inguruko eta lagun batesari esker, egoera hau psikologikoki ez baita batera erraza eramaten, eta haiek animatzen naute ez dezadan bertan behera utzi”.

Kontatu digunez, aniztasun funtzionala, hirugarren sektorea eta gizarte lana uztartuz bizitza independenterako gakoak ematen dituen Da Costaren gradu amaierako lanak Arrakasta kategorian lehenengo saria lortu du EHUKo ikasleen bosgarren kongresuan, “eta horrek ere aurrera egiteko bultzada eman dit”. ●



Eva Ferreira errektoreak (ezkerrean) Gizarte Kontseiluan erantzun die Noelia Da Costaren kasuko galderei.

MATERIALISMO HISTERIKOA

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

Magia



UXUE APAOLAZA LARREA

Umeak “jarri ordenagailuko papera” esaten dit testu prozesagailua irekitzeko: hizkien fasean dago. Papera. Eta ni ere hala ari naiz idazten, aurrean papera banu bezala: pantaila bat dut berez, eta ideiarik ez daukat teklatuan agintzen dudana pantailako zuritasunera hain zehatz nola iristen den. Gutxiago dakit idatzitakoa beste herri batean dagoen ordenagailu batera nola iritsiko den, eta nola manipulatu ahal izango duten aldizkari batean txertatzeko. Ziur asko, inprimatzeko ordua iritsi arte ez nuke ezer ulertuko (berriro) azalduko balidate ere.

Medikuarenean eskarlatina dela esan didatenean, proba pare bat egin ondoren, txorizoa erostera bezalaxe joan naiz farmaziara botika bila (tira, txorizoarena ere norbaiti bururatu zaitzaion noizbait). Estreptokoko bat da, A taldekkoa, ia desagertuta egondakoa. Nola ikusi dute? Eta azaldu didaten arren, zaila zait imajinatzea gauza txiki horiek nola ikusi zituzten, nola asmatu zen horiei aurre egiteko botika bat, botika horrek nola funtzionatzen duen.

Mitologia indibidual baterako materialez inguratuta nago, nondik eta nola iritsi zaizkidan ez dakidan objektu eta asmakariz. Bizitza errazten, salbatzen, erosotzen didate. Eta kritika daiteke banan-banan nola alienatu nauen horietako bakoitzak, baina Gabonetan pasako dituzun une zailetan, zurekin egon ahalko dut, ondo-ondoan, belarrira maitasuna xuxurlatzen, ehun kilometroko distantziara. Haurrak pantailako botoia sakatu du, eta dena desagertu da: “magia”, esan du. Zientzia esan nahi zuen. ●



ADUR

Kontsumoa

EAEko nekazarien ENBA sindikatuak landutako txostenaren arabera, saltoki handiek bertako produktuak askoz garestiago saltzen dituzte erosten dituzten prezioekin alderatuta. Adibidez, behi esnea %45-55 garestitzen dute eta oilaskoa %70-80. Neurriak eskatu ditu sindikatuak.

Hedabideak

Hekimenek kritikatu du euskal hedabide gehienak Covid-19ko dirulaguntzatik kanpo daudela. Hedabideak laguntzeko Eusko Jaurlaritzak aurtun egindako bi dirulaguntza deialdi aztertu ditu herri ekimeneko euskal hedabideen elkarteak, eta ondorioztatu du “baliabide handitze nabarmena” behar dela.

Euskara

Ikastoletako zuzendariak planto egin diote Jaurlaritzari, bilera gaztelania hutsean egiteagatik. Power-pointa euskaraz jarri eta azalpen guztiak gaztelaniaz egingo zituela, “gaia oso teknikoa delako”, horrela hasi zuen bilera Hezkuntza sailburuordeak. Zuzendari ugari bilera uztea ekarri zuen horrek.

Euskal arkitekta aitzindariak



ULA IRURETAGOIENA

Euskal Herriko Arkitekto Elkargoko lehen 16 arkitekto-emakumeen belaunaldia omendu dute, eta horietariko 12 Donostiako Arkitektoen egoitzara bertaratu dira omenaldia jasotzeko. Lehen arkitekta aitzindariak gazteak dira gizonekin konparatuz; gizonena 1930. urtekoa eta emakumeena 1967koa. 70eko hamarkadan lehen emakume belaunaldia jaio zen (ia denak bizirik egun). Frankismoan unibertsitate ikasketak burutu eta ondoren profesioan hasi ziren.

Emakume arkitekto goiztiar hauetako gehienek diote arkitekturarako bidearen erabakia modu apalean egin zutela, inork ez zuela bokazio goiztiarrik azaldu, ez direla arkitekto gurasoen kume. Garaiko estereotipo bati jarraitu zioten: matematikan onak eta margotzea gustuko zuten. Aho batez kontatu dute ondo pasa eta gogobetegarri eta atsegin handiz ibili direla arkitekturan, izan irakas-kuntzan zein eraikuntzan. Baita lanordu luzeko ikasketak eta lanbidea dela ere.

Arkitekta belaunaldi honek bidea egin du, gizonen artean. Askok senar arkitektoa dute (egun ere ohikoa da bikote arkitektoena). Ibilbideak kutsu politikoa izanda ere, ez dute horren jabekuntzarik. Baten batek matxismorik gabeko lanbidea egin duela esan du inkluso. Profesio eta amatasunaren zailtasunak ez du aipamenik izan, normaltasun-zailtasunen poltsan onarturik. Gure belaunaldiari dagokio irakurketa politizatua egitea, arkitekturen bizitzaren profesionala duina izan dadin, gizonenaren adina.

Eskerrak: María Teresa Capdevila Bermejo, María Rosario Frías Sagardoy, María Antonia Frías Sagardoy, Teresa Unzurrunzaga Goicoechea, Maite Zelaia Errazu, Rakel Martínez de Ubago Fernández, Aurora Barrio Suárez, María Jesús Zueco Royo, Mari Paz Larrumbide Moreno, Carmen Gómez Daroca, Ana María Fernández Alday, Isabel Cámara Guezala, María Isidra Busturia Bilbao, María Pilar Frías Sagardoy, Amaia Jaurrieta Osés, Cristina Fontán Villanueva. ●



Alemaniak 21 pieza historiko itzuli dizkio Nigeriari

URKO APAOLAZA AVILA

XIX. mendean soldadu britainiarrek arpilatu zituzten brontzezko irudi balioetsuak eta salgai jarri zituzten Europa osoan. Horietako asko Londresko Britainiar Museoa dituzte oraindik.

Kolonialismoaren garaietan Afrikako lurraldeetan egindako arte ondare arpilatzeak itzuli eta egindako kaltea konpontzeko prozesua hasi du Alemaniako Gobernuak, eta Nigeriako Kultura ministroaren esku utzi ditu Beningo erreinuaren denboran egindako brontzezko 21 pieza baliotsu. Tartean daude oba edo errege baten latoizko burua, zeremonia bateko irudi bat eta pitoi suge batek inguratutako tronu baten beste bat.

Pieza horiek Beningo hiritik atera zituzten soldadu britainiarrek 1897an egindako zigor eraso batean. Mende askotako erreinua zen Benin, merkataritza eta brontzezko kultura aberats baten jabea, eta britainiarrek erabat arpilatu zuten XIX. mende bukaeran, Afrikako kolonizazio eta zapalkuntza garai batean.

Piezak Europako hainbat museori saldu zizkieten ondoren, Berlin, Hanburgo, Stuttgart eta Koloniako museoetara, besteak beste. “Dagokion lekura itzultzen da”, azaldu du Alemaniako Kanpo Harremanetarako ministro Annalena Baerbockek, boliz egindako maskara ikusgarri bat nigeriar ministroaren eskutan uztean. Alemaniak halako 1.000 pieza inguru itzuli zizkion uda honetan Nigeriari legalki, eta 21 brontze hauek horren lagin bat baino ez dira.

Hala ere, arpilatutako ondarea askoz zabalagoa da, eta Britainia Handiari leporatu diote honek oraindik halako pausorik ez eman izana. Britainiar Museoa gordetzen dira Beninen eta Afrikako beste toki askotan XIX. mendean lapurtutako milaka pieza. Hango gobernuak, baina, etengabe zapuztu du ondare hori dagokion tokira itzultzeko eztabaida, nahiz eta beste toki batzuetan pauso txiki batzuk jadanik eman diren.

Frantziako Estatuak, adibidez, duela urtebete itzuli zituen Dahomeyko erresumari (Gineako Golkoa) ostutako 26 artelan, XIX. mende amaieran lapurtuak. Hainbat kalkuluren arabera, ordea, gutxienez baliozko 88.000 pieza daude oraindik Frantziako museoetan, Saharaz azpiko Afrikan jatorria dutenak.

Alemaniak emandako pausoa akuilu izatea nahi dute agintariek, baina legez itzulitako piezetako askok alemaniar museoetan jarraituko dute, maileguan emanak. Orduko arpilatze kulturala, ezinbestean lotuta baitago Afrikako herrialdeek gaur egun oraindik jasaten duten arpilatze ekonomiko eta ekologikoarekin. ●

14 milioi

txerto inguru, COVID19ren aurkakoak, iraungi dira Espainiako estatuan 2020ko abenduaren 27an txertaketa kanpaina hasi zenetik aurtengo azaroaren 14ra arte. Gehien iraungi diren dosiak Pfizer-enak dira, Europar Batasuneko hornitzailearik handiena.

1,7 milioi

maskarak erabili gabe jarraitzen dute Iruñerriko biltegi batean, bi urte ondoren. María Chivite lehendakariaren hitzetan, operazioa hobeto borobildu zitekeen, baina, oro har, ongi egin da.

85.000 euro

euro bildu ditu Errigorak, udan suteek Nafarroan eragin zituzten inoiz jasan gabeko kalteei aurre egiteko erabiliko direnak. Euskal Herriko elkarte, udal eta norbanakoen ekarpenei esker lortu du dirua.

“Ikerlariak gara uneotan EHUn egoerarik kaskarrenean dagoen sektorea”

JUNE OLAZAR

EHUko Leioako campusean doktoregaia, Biologia Molekularra eta Biomedikuntza arloan.

ARGIA.EUS (2022-12-20)



“ODONTOLOGIA BEREZIKI PRIBATUA DENEZ INTERESEN ARABERAKO GATAZKAK SORTZEN DIRA”

ESTHER SAINZ

1 Osasunbideako Aho-hortzen Osasun burua.

ARGIA.EUS (2022-12-23)

“Astean zortzi ordu gehiago eskainiko zaizkio jendeari, baina aurrekontua apaldu digute. Orain arteko zerbitzuaren jarraipena arriskuan dago”

MAITANE UNZU

Kattalingune Nafarroako Berdintasun Institutuko kidea. Nafarroako Gobernuak Kattalingunera ia 38.000 euro gutxiago bideratu dituela salatu dute LGTBI elkarteek.

2022-12-20



Taser pistolak ere erabiliko dituzte aurrerantzean Iruñeko udaltzainek

GEDAR LANGILE KAZETA

Bortxaren erabilera progresiboa beharrezkoa denean" erabiliko dituzte arma berriak, azaldu dutenez. Bideokamera pertsonal bat ere izango dute taser pistolak daramatzaten polizia-agenteeek.

Iruñeko Udaleko Hiri Segurtasuneko alorrak azaldu duenez, hemendik aurrera, arma bat gehiago izango du Iruñeko Udaltzaingoak: T7 ereduiko taser pistolak. Deskarga elektrikoaren bidez, pertsonak ezgaitzeko eta gelditzeko balio dute pistola horiek. Kontrol Gailu Elektriko (DEC gaztelerazko sigletan) modura daude sailkatuta, eta "udaltzainen eguneroko lanaren osagarri" izango dira aurrerantzean Iruñean. Berez, azaldu dutenez "bortxaren erabilera progresiboa beharrezkoa denean" erabiliko dituzte pistola elektrikoak udaltzainek, eta Hiri Segurtasuneko buruek esan dute "erabat seguruak" direla, argudiatuta "gradualki handitu edo txikitu" daitekeela "tresna horren intentsitatea; pertsonen ezaugarri fisikoen arabera".

Gailu adimendunak dira T7 pistola, eta, dirudienez, kamera pertsonal bat izango dute konektatuta, momentu oro: polizia-agente batek taser pistola ateratzean jarriko da martxan kamera. Formakuntza-ikastaro bat egingo omen dute arma horiek erabiliko dituzten udaltzainek, eta horren ostean, urtebeteko baimena izango dute erabilerarako. Udaltzaingoaren araudiaren arabera, patruilatzen aritu beharko dira pistola elektrikoak daramatzaten udaltzainak, eta sakabanatuta ibiliko dira.

Azkoiengo (Nafarroa) udaltzainek erabili izan dituzte taser pistolak aurretik, gutxienez, lau aldiz. Antza, Foruzaingoak eta Tafallako nahiz Eguesibarko udaltzainek ere badute T7arma hori eskuratzeko asmoa. ●

NAZIOARTEA



AP / MATIAS DELACROIX

Guaidók hondoa jo du Venezuelan

AXIER LOPEZ

Duela lau urte Juan Guaidók bere burua Venezuelako behin-behinekoko presidente izendatu zuen, herritarrek hautatu gabe. Ohiz kanpoko mugimendu bat, eskura izan dituen modu guztiak erabili izan dituen oposizioaren aldetik, aurrena Chavizen gobernuaren botatzeko eta ondoren Madurorena. Estrategia horien artean, indarkeriaren erabilera eta kolpismoa ere izan dira.

Ordura arte ezezaguna zen Juan Guaidó politikari eskuindarrak buru zuen "gobernu legitimoaren" sorrerarako bi zutabe izan ziren oinarritzakoak. Alde batetik, eta gehien bat, AEBetako Gobernuaren sostengua, eta, beraz, nazioarteko komunitatea delakoaren zati handi batena, tartean Pedro Sanchezen gobernuarena eta Urkullurena, Iñaki Anasagastiren EAJk bultzatuta. Eta beste alde batetik, garai hartan batasunez ziharduen oposizioaren askotariko alderdien babesa. Mundu mailako kanpaina mediatiko indartsuaren ondoren, hainbat herrialdetan egindako bira barne – askok estatus ofiziala eman zioten ezerezetik sortutako "gobernuari" –, Guaidóren *bluff*-a husten hasi zen, gaur egun ia desagertu den arte.

Lau urteotan nazioartean babes handia galdu du. Guaidóren babesle nagusiak aspaldi utzi zion Maduroren gobernuari diktadura esateari, batez

ere AEBak Venezuelako petrolioaren berri ere erosten hasi zirenetik. Egun batetik bestera diktadore izatetik bazkide komertzial bihurtu zen. Azken urteotan Argentina, Mexiko, Peru eta, oraintsua, ezkerreko gobernuen etorrerarekin, Kolonbia edo Txile bezalako herrialdeen babesa ere galdu du.

Barne-mailan ere kaltetuta atera da apustua. Asteazken honetan, 2019an Guaidóren autoaldarrikapena babestuz gero 112 oposiziogileetatik 69k sinatutako komunikatu baten bidez, Guaidóren "behin-behinekoko gobernuaren" funtzioak bertan behera uzteko eskatu dute. Lau urteren ostean, esperientzia ahuldu egin dela esan dute, "hasieran planteatutako aldaketa politikorako helburuak lortu gabe". 2019az geroztik, Venezuelako Gobernuaren eta oposizioaren artean sortutako Elkarrizketa Nazionalerako Mahaiak akordio garrantzitsuak lortu zituen, eta horrek are gehiago ahuldu zuen Guaidóren bidea.

Gauzak horrela, Guaidóren sasi-gobernuaren konponbidea baino gehiago, arazoa da egun haren lubaki-kideentzat, eta horregatik, oposizioaren dauden alderdi batzuek primarioak egin nahi dituzte 2023an, 2024rako aurreikusita dauden presidentetzarako hauteskundeetan Maduroren aurrean hautagai bakarra aukeratzeko. ●

ANALISIA

Berriztagarriak non?

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Eusko Jaurilaritzak EAEko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (LPS) egiteari ekin dio. Gurdia idien aurretik jarrita goaz, hiru urte baitira Eusko Legebiltzarrak plan hau berritzeko eskatu ziola, eta plan hau gabe hasiak dira enpresak han-hemenka eguzki plakak eta haize errotak egiteko proiektuak aurkezten. Helbide honetan daude ikusgai LPS horretako hainbat dokumentu: labur.eus/iD96n

Dokumentu horien artean bat da "LPSren aurrerapen dokumentua", eta horien artean bat da "planoak". Horietara joz, ikus daiteke EAEko zein eremu dauden izendatuak "esklusiogune" moduan energia fotovoltaiorako, eolikorako, biomasa elektrikorako, entalpia handiko energia geotermikorako, energia ozeanikorako eta minihidraulikorako. Mapa guztiak gainjarritz gero, ez dakit gorritz markatu gabeko zenbat gune izango diren.

Klima larrialdiaren aurrean CO2 ahalik gutxien isurtzen duten energien alde egitea ezinbestekoa da. Edozein modutan, ordea? Gaiaz mahai-inguru oso interesgarria egin zuten Altzon, hiru mahaikide hauen artean: Olatz Azurza (Ekopol), Aitziber Sarobe (ekologista) eta Hodei Arzak (Krean ingeniari enpresa). Sarobek adierazi zuen etorkizunera begira tenperaturaren igoera bezain arazo larri bat badugula: bioaniztasunaren galera. Eta berak oinarri hau planteatu zuen energia berriztagarriak non kokatu erabaki behar denarako: jada artifizialduta edo asfaltatuta dauden lurretan egitea, gure porlan lurralde industrializatu hau lehendik oso kastigatuta eta masifikatuta dagoela azpimarratuz.

Badirudi Sarobek planteatutako irizpide hau bat etor daitekeela agroekologia mugimenduak plazaratu duen adierazpenarekin: "Gure mendiak aske nahi ditugu eta horien defentsa autodefens-




Hona Jaurilaritzak energia berriztagarri bakoitzarentzat izendatutako "esklusiogune"ak:

A mapa fotovoltaikoa; **B** eolikokoa, **D** biomasa, **E** geotermia eta **F** hidraulikoa.

tsa agroekologiko gisa ulertzen dugu". Arreta deitzen du lur berak direla hainbat energia berriztagarrirentzat "esklusiogune" izendatutakoak, eta horiek mendi kateak eta landa eremuak dira.

Berriztagarriak negozio lerro dira ingeniari etxeentzat, hauen piezak egiten dituzten industriarentzat... eta mendipuntetan jartzen badira hobe, asfaltolariarentzat. Hauen denen marketin mezuek lotzen dute edozein berriztagarri proiektu "burujabetzarekin" (nahiz denek onartzen duten azalera osoa berriztagarri okupatuko bagenu ere ez genukeela egungo argindar kontsumoa asetzeko adina lortuko), "etorkizunarekin", "planetaren aldeko ekintzarekin"... Baina gaia kontraesanez beteta dago, eta xehe aztertu behar da horietako bakoitzak benetan zer kalte eragiten dion bioaniztasunari, azpiegitura hauen material guztiak ekoiztetik ezartzen direnera guztira zenbat CO2 eta kutsadura eragiten duten, zenbat lur eta ur erabiltzen duten, ekonomikoki guztira zenbateko kostua duten... eta benetan zenbat den hortik sortuko den energia, zenbat urtera iraungiko diren azpiegitura hauek, ekonomikoki errentagarriak diren, eta bioaniztasunari egindako kaltea asumitzea merezi duen.

Hitzaldian aipatu zen puntu batek izulaborria eragin zidan: guretzat oso garestia den hemen sortutako energia elektriko oso merkea dela Europarentzat. Eta Pirinioetako pasabidea izanik, Iberiar penintsularen hegoaldean sortutako energia Europa iparralderantz eramateko "autopista elektriko" josiko dizkigute itsaspe, lurpe eta zeruak. "Burujabetza" irreal hori bezain desiragarri ez ote da batzuentzat hemen sortutako argindarra bertako herritarrok baino garestiago ordaindu ahaliko duen Europari ahalik gehien saltzea? Bai zera, ez du zentzurik (galdetu valentziarrei nork jaten dituen hango laranjarik onenak). ●



“Botereen banaketaren aurkako erasoa da, baina estatua ez da erori”

 GESSAMÍ FORNER / EL SALTO-HORDAGO

Espainiako politikan urak nahasita dauden honetan, Konstituzio Zuzenbideko irakasle eta Auzitegi Konstituzionaleko letradu ohi Joaquín Urías elkarriketat dute *El Salto*.

Egunak daramatzat erregea ikusteko zain, baina badirudi eskuineko kolpe judizial bat ez dela haren kontua.

Gogoan izan beti defendatzen dugula erregeak politikan ez esku hartzea. Zeregin sinbolikoa izan behar du, ez da atera behar batzuei edo besteei laguntzeko.

Nahastuta nabil, kolpe judiziala entzuten dut eta...

Auzitegi Konstituzionalak bere eskumenak gainditu ditu, eta beraz, kolpe judiziala da. Botereen banaketaren aurkako erasoa da, baina estatua ez da erori. Estatu-kolpe bat balego, Espainia ez litzateke demokrazia izango. Salbuespen bat egon da, eta legez kontra botereen banaketaren gainetik jausi egin dute, baina Espainiako sistema ez da aldatu.

Zer aukera ditu Pedro Sánchezek?

Aukerak baino gehiago, Pedro Sánchezek eta, batez ere, parlamentuak erakutsi behar diote Auzitegi Konstituzionalari demokratikoki aukeratutako botereak haren gainetik daudela. Herriaren borondatea gauzatu egin behar dela, nahiz eta eskuineko magistratuek ezetz esan eta zuzenketa eztabaidatzea eragotzi. Parlamentuak erakutsi behar du demokraziak irabazi egiten duela, herriak arau hori onartzeko zilegitasuna duela.

Konstituzionala berme-organoa da, baina arazoaren muina Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia da.

Zergatik egiten du PSOEk ezikusiarena erakunde horren jatorrizko blokeoaren aurrean?

PSOE pragmatikoa izatera jolasten ari da, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak agintaldi bat baino gehiago darama berri barik, eta uste dut PSOEk galdutzat eman duela haren berritzea. Aterapenak agintaldi oso bat irauten duenean eta bokalak hirugarren agintaldi batean bezala ari direnean, sistemak erakusten du ez



duela funtzionatzen. Egia esan, ez dakit oso ondo zer egiten duen PSOEk, hori konpontzeko mekanismorik ez dagoela pentsatzen duen edo galdutzat ematen duen.

Gustatzen al zaigu Auzitegi Konstituzionaleko Fiskaltza?

Espainiako fiskaltza arazo bat da auzitegi guztietan, beti egoten baitira zailtzak inpartzialtasunari buruz. Uste dut Auzitegi Konstituzionaleko fiskaltza gustatzen zaigula gurekin ados dagoenean. Orain zentzuzko zerbait eskatu du, beste batzuetan ez, adibidez Kataluniako Parlamentuan eskumenak inbaditu zituenean. Independentea izatea gustatzen zaigu; batzuetan harekin bat etorriko gara eta beste batzuetan ez.

Zer espero duzu gertatzea?

Premiazkoena Auzitegi Konstituzionala berritzea da. Arazo handi bat dugu, bi magistratuek ez dute beren agintaldia amaitu nahi, eta gainera beren ordezkoei ez diete sartzten uzten kargua har dezaten. Hori da egoera honen guztiaren anomaliarik handiena. Alde egitea onartu behar dute. Horren aurrean, ez daukat oso argi nola jokatu. Lege-proposamena ez da onartuko urtarrila edo otsaila amaitu arte; beraz, bi hilabete itxaron behar dugu, eta agian beste neurri juridiko bat hartu beharko da.

Soldata kendu?

Ez, ezin duzu. Nolabait, duten betebeharrak konstituzionala betetzera behartu behar dira. Egiten ari direna errebeldia konsti-

tuzionala da. Agian auzitegiari kereila bat aurkeztu beharko litzaioke.

Prebarikatzen ari dira?

Ez nintzateke ausartuko hori esatera, prebarikazioa egiteko, egiten dutena legez kontrakoa dela jakin behar baita, eta haiek uste dute estatua euren dela, ez dabiltzala legearen gainetik.

Nola konponduko litzateke hau?

Arazo batzuk ezin dira arau juridikoarekin konpondu, kontzientzia demokratikoarekin baizik. Konstituzioak iraun egiten du, herriak eta gizarteak hura aplikatzeko borondatea duten heinean, eta, beraz, nahiz eta arauak behin eta berriz jarri indarrean, berrinterpretatzen dira eta ez dute errealitatea aldatzen: arauak ez dute errealitatea aldatzen borondaterik ez dagoenean. Konstituzio Auzitegiak nolabait independentzia izan behar du. Onartu behar dugu magistratuek beren kabuz jardun dezatela borondate konstituzionala aplikatuz. Espainiaren arazoa da alderdiek ez dituztela aukeratu nahi ezkerreko edo eskuineko magistratuak, beren alderdiaren interes taktikoei eta berehalakoei men egingo dieten magistratuak aukeratu nahi dituzte. Orain PPrenak nahi dituzte, eta hori zentzugabekeria da. Magistratu kontserbadoreak eta aurreakoiak izango dituen auzitegi bat behar dugu, baina aldi berean independenteak, erabakiak hartzeko independentzia nahi-koarekin jardungo dutenak. Ez dago beste irtenbiderik. ●



ATXEGA JAUREGIA

JATETXEA

AITZEZARRA KALEA 1 USURBIL, GIPUZKOA
943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN GARATZEKO BALIABIDE ESKASIAK DESAZKUNDERA BEHARTZEN GAITU

Bukatzen zaigun 2022an trantsizio energetikoaren gaiak oldar berri bat hartu du, hornitze arazoez eta etorkizuneko klimaren zaporea zuen udak bultzaturik. Trantsizioa ezinbertzekoa bada ere, behar dituen baliabide mineralet asko mugatu dezakete, batez ere gaurko kontsumo maila aldaezintzat jotzen baldin bada. Energia iturrien ordezkatzeko hutsetik haratago, desazkundera jasagarria izan dadin, gure eredu industrialean erabaki sistemikoak hartu beharko ditugu.

 NICOLAS GOÑI

Bukatzen ari zaigun urtean bi joera sakon gogortu zaizkigu Europan: energia kontuetan dugun burujabetza eza eta klima aldaketaren eraginen gogortzea, batez ere bero uhin eta lehorteei dagokienez. Bi joera horiek norabide bera argi erakusten digute: erre-gai fosilak erabiltzeari utzi behar diogu, bihar baino herenegun izan balitz hobe. Era berean eta logikoki, energia berriztagarrietan inbertitzeko deia gero eta ugari eta ozenagoak dira. Petrolioak gure atzean utzi behar dugula berriztaezina delako (klima kaltetzeaz gain) begibistakoa bada ere, gutiago ezagutzen dira energia berriztagarrietara trantsizioa masiboki egitearen erronka materialak. Zehatzago, haize eiharak, eguzki panelak eta bateriak ekoizteko mineralak dira mugatuko gaituztenak.

ZEIN METAL ETA ZERTARAKO?

Goi-teknologiei buruzko ikuspegi kritikoa garatu du Phillipe Bihouix ingeniaria eta mineral baliabideetan adituak, "desmaterializazio" eta "deskarbonizazio" hitzen atzean dagoen materialtasuna eta berriztagaiztasuna ahaztuegiak direla azalduz. Ohartarazten digu duela 40 urtetik gaur arte, 30 metal gehiago erabiltzen direla ohizko ekoizpen industrialetan: kobaltua, tantalua, germania, titanioa, galioa, indioa... Batez ere gai elektronikoak ekoizteko erabiltzen dira, baita plastikoa eta tinta berezietan ere. Birziklatzeko oso zailak dira, gehienetan aleaziotan eta kopuru txikitik daudelako, edota kimikoki barreiatuak (beraz erauzteko energia asko behar dute). Birziklatze arazoez aparte, metalak, erregai fosilak bezala, kopuru muga-

tuan aurkitzen dira: erauzketa maximoa pasa ondoren, gero eta energia gehiago behar da gero eta kopuru txikiagoak – eta kalitate txarragoak – meategietatik ateratzeko.

Simon Michaux geometalurgia irakaslea da Finlandiako Geologia Ikerketa Zentroan. Joan den abuztuan emandako energia berriztagarrientzako metalei buruzko mintzaldian azaldu zuen azken 60 urteetan hiru fase ikusten dituela mineralen eta erregai fosilen prezioan, eta haustura esanguratsuen 2005ean kokatzen duela: ordutik goiti, petrolio konbentzionalaren ekoizpena –ordurarte beti emendatzen zena– maila berean gelditzen hasi zen, baina eskaerak gora jarraituz prezioak igo ziren, eta horiekin batera mineral guzuen ustiatzeko kostuak, eta hortik haien prezioak ere. Hori 2008ko



KOBALTO MEATZARIAK

Kongoko Errepublika Demokratikoan dabilzanak. Trantsizio energetiko gauzatzeko behar den kobaltoaren %3.5 baizik ez dago munduko erreserbetan. Argazkia: Sebastian Meyer


finantza krisiak ez zuen “zuzendu”, arazoa egiturazkoa dela erakutsiz, eta ez espekulazioarena. Trantsizio energetiko osoa egin nahiz gero (hots, gaurko erregai fosilak energia berriztagarriez ordezkatu), ondoko metalak eskasa larrian lirateke: kobrea (frogatutako erreserbak behar dugun kopuruaren %20 baizik ez dira), nikela eta litioa (beharraren %10 baizik ez), kobaltoa, grafitoa eta banadioa (%3.5 inguru bakarrik).

Konklusio horretara ere heldu da Antonio Turiel fisikari eta CSICeko ikerlaria, eta “zero isurtze” edo “karbono neutaltasun” ekimenaren egingarritasun fisikoa zalantzan jartzen du. The oil crash webgunean iaz idatzitako *Algunas preguntas incomodas* (“Galdera deseroso zenbait”) artikuluan ohartarazten zuen ekimen ho-

**Dagokigun erabakia:
edo prestatu gabe
jarraitu, desazkunde
kaotikoa arriskatuz; edo
beharrak eta ekoizpen
sistemak sakonki
eta demokratikoki
birpentsatu**

rreren helburuak betetzeko 2040rako aurreikusten dela litio ekoizpenak bider 42 egitea, grafitoarenak bider 25, kobaltoarenak 21, nikelarenak bider 19 eta lur arraroenak bider 7. Zehatzago, ekoizpena maila horietara igo behar dela dio Nazioarteko Energia Erakundeak –ez baitezpada igoko denik, ordea–.

Era berean birziklapena maila handian martxan jarri (Bihouixek zehaztu bezala, hori ez da kontu erraza), edota “erreserba estrategikoak” osatu behar direla dio, gertatuko liratekeen hornitze etendurei aurre egiteko. Turielen iritziz, horrek atea zabaltzen dio baliabideen akapartzeari. Hilabete hasieran emandako “Energiaren eta materialen krisia” mintzaldian azaltzen zuen uranioaren ekoizpen gailurra 2016an jo zela, eta ordutik



LEHEN EGUZKI PANELA

George Cove, 1910an sortu zuen eguzki panela aurkezten ari. Gaurkoak baino efizientzia apalagoa izanik ere, konpongarria zen eta ekoizteko ez zen metal urriarik behar. Iturria: Low Tech Magazine.

ekoizpena %24 jeitsi dela. Erregai fosilekin batera, 2018 eta 2020 urteen artean gure energiaren %89 ematen duten iturrien erauzketa gailurra gainditu dugu. Oraindik goiti, gero eta gutiago izanen dugu eskura 2020ko udaberrian aipatzen zen “biharko mundua” eraikitzeko.

BIRZIKLATU BAI, SINPLIFIKATU, AURREZTU ETA BEHARRAK BERRIKUSI ERE BAI

Nolazpait erran genezake trantsizio energetikoari esker petrolioak eskuratzeko gatazka gutiago izanen direla, eta horien ordeztu litio, grafito, kobalto edota kobre meategiak jabetzeko gatazka ikusi ditzakegula, baldin eta energia berriztagarria ekoiztearekin batera ez bada baliabideak aurrezteko neurriak hartzen maila globalean.

**Low tech ekimenaren
ardatz dira energia
beharrak minimizatzea,
baliabide urriak ahalik
eta gutien erabiltzea,
inguruneari edo
belaunaldi berriei kalte
izkurturik ez egitea**

Michauxren arabera, erregai fosilek elikatutako ekoizpen sistema hamarkada gutitan eta guztiontzako energia berriztagarrien bidez ordezkatzeko ezinezkoa dugu, ez baitago denborarik ezta baliabide fisiko aski ere. Erregai fosilak erabiltzeari uzteko, ekosistema industrial osoa berridiseinatu, horri tresna berriak eman eta berreraiki beharko da. Gerta litekeena da baliabide guzien eskaera globala azkarki jaistea. Bere hitzetan, “honek gizarte hitzarmen *-social contract-* eta gobernatze sistema oso ezberdinak eskatzen ditu, gaurkoari alderatuz”, gizarte mailako galderak irekita utziz.

Turielek modu esplizituagoan erraten du desazkundea ezinbertzeko dela, eta gizarte mailan hautatzea dagokigula: edo prestatu gabe jarrai-



LITIOA

Txile iparraldeko Atacama basamortuko litio meategi bat. Argentinako Salar del Hombre Muerto eta Boliviako Uyuni gatz lautadekin batera, munduko litio iturri handiena osatzen dute hiruek. Iturria: Hemis.

tu eta desazkundeak modu kaotikoan eraman gaitzala itxaron; edo aitzindu eta beharrak eta ekoizpen sistemak sakonki birpentsatu modu demokratikoan.

Goi-teknologiaren narratibaren aurka, Bihouixek behe-teknologiaren – *low-tech*– aldeko apustua egin behar dugula dio. Iraganeko teknikak berreskuratzetik haratago, behe-teknologiaren helburua ahalik eta “teknologizazio” gutien duten berrikuntzak garatzea da, ekoizteko eta erabiltze-

**Erregai fosilak energia
berriztagarriez
ordezkatzeko, gaurko
erreserbek kobre beharren
%20 soilik bete ditzakete,
litio beharren %10 eta
kobalto beharren %3.5**

ko energia minimizatuz, baliabide urriak ahalik eta gutien erabiliz, eta inguruneari edo belaunaldi berriei kalte izkiturik egin gabe. Nola? Gai iraunkorrak eta konpongarriak ekoiztuz, benetako ekonomia zirkularra garatuz, berrerabilpena eta birziklatzea erraztuz, eta lan duinean oinarrituz. Teknologiatik haratago, behe-teknologiaren ekimena sistemikoa da. Aitzindu gabeko desazkundera baino etorkizun erakargarriagoa, dudarik gabe. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com





IRAULTZA ATEO DEKLARATU ZENEAN, ORDUANTXE ALDAKETA GURE ETXEAN



Habanan egindako elkarriketa baten bigarren atala izan liteke hau. 2011ko ekainaren 19an ARGIAren orrialdeetan mintzatu ginen Holguineko (Kuba) gotzainarekin. Francok estatu-kolpea jo zuen garaian Legazpiko alkate Daniel Arangurenen eta Emilia Etxeberriaren semea dugu, gurasoen erbestealdiaren lekuko zuzena.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Duela hamaika urte Kuban hitz egin genuen. Oraingoan, haatik, Euskal Herrian ari gara. Egun on – esan diogu, euskaraz-, lehenbiziko. Bai, egun on [euskaraz, berak ere]. Go-goan dauzkat zenbait hitz euskarazkoak, gurasoek euskaraz hitz egiten zioten-eta batak besteari, eta guk ere zerbait ikasi genuen. Euskara ez zitzai-gun arrotza, alegia. *Egun on... aita... ama... eskerrik asko... ogia... ondo lo egin... ipini zopa...* Halakoxeak. Euskal Herrian ibili naizen honetan, bestalde, Legazpin izan naiz –hemen naizen guztietan bezala, Legazpin, hangoxeak baikenituen gurasoak-, eta meza esan

dudanean “Eskerrik asko, Jauna” kantatu dut. “Zuk badakizu kantu hori!”, esan zidaten, eta nik: “Buruz ez, baina letrak aurrean ditudala, bai, etxean kantatzen zuten-eta. Gauza txiki horiek dakizkit euskaraz, askoz gehiago ez.

Aldian aldiko gotzain-konferentzia tarteko izan zaitugu gurean.

Bai, eta Italian eta Alemanian ibili, eta etxera etorri naiz, Legazpira. Huraxe dugu gure lurra hemen, hangoxeak genituen gurasoak, eta hemen naizen aldiro haraxe joan eta meza esan behar izaten dut. Oraingoan ere ez dugu huts

egin, lehengusu-lehengusinen arteko bazkaria egin genuen, Antiguan (Zu-marraga), eta 30 lagun baino gehiago bildu ginen. Baziren batzuk ezin etorri izan zirenak, adin handikoak, belaunetako minez direnak, baserrian gelditu zirenak. Baina Euskal Herrira etorri eta Legazpira joan gabe ez dugu etsitzen. Gainerakoan, Oñatiko moja beneditarrak bisitatzera ere joan nahi izaten dut, gure aferak haizatzen ditugu, inoiz nola-halako laguntzaren bat ere eman izan digute Holguinen dugun ikastetxeko ikasleei laguntzeko, eta horrela. Zuztarretara itzultzen naiz hona etortzen naizen aldiro.



Emilio Aranguren Etxeberria

SANTA CLARA, KUBA, 1950



Holguineko gotzaina Kuban 2005az gero. Legazpikoa zuen aita, Francoren matxinada aurretik Legazpiko alkatea, Mutiloakoa ama. Bost anai-arrebetan gazteena, kubatar bezainbat euskalduntzat erakusten du bere burua han eta hemen. Etxeko txikiena izanagatik ere, gurasoen historiaren lekuko da, ahozko transmisio aberatsari esker, eta halaxe kontatzen ditu gurasoen garai batego emigrazioa, Santa Clarako bizimodua, iraultza, arreben emigrazio berria eta gainerako.

Legazpira, oroz gain. Gurasoak hilagatik ere, eta urteak joanagatik ere, Legazpiko lotura estua ez duzue galdu...

Gurasoek transmititu zigutena duzu, ahozko transmisio zuzena, ez da besterik. Nik uste gure gurasoek nahita, berariaz, hitz egiten zigutela Legazpiz. Intentzionalitate osoa zegoen haien hitzetan. Esango dizut: 1985ean izan nintzen lehenbizikoz Legazpin, artean bizirik ziren zenbait osaba-izeba, eta, ezer baino lehen, Motxorrorra joan nahi nuela esan nien. Gure etxean, Kuban, Motxorroa aipatzen zuten-eta gurasoek behin eta berriz eta askotan. Eta Motxorrorra eraman nindutenean, tokia ikusi, eta ezagutzen nuela iruditu zitzaidan. Berdin, Mirandaolako gurutzera joan nintzenean. Izana nintzen, ez nintzen izana, baina izana nintzen. Berdin Mutiloan -Barkaiztegin, hangoxea genuen-eta ama-, eta Arantzazun, jakina! Gainera, osaba Pedro [Aranguren], Arantzazuko fraide guardiana izana zen.

Osaba Pedro, batetik, eta Juan [Aranguren], bestetik. Zuen aitaren anaiak, frantziskotarrak, biak Kuban izanak...

Eta haiexen bitartez joan ziren gurasoak Kubara, haiei eskerrak egin ahal izan zioten aurre, erraz antzean, emigratzailearen bizimoduari. Ez ziren babesgabe ibili. Gerraurrean, gure aita Legazpiko alkate zen, eta kolpea jo zutenean ihes egin behar izan zuen. Lehenik, Frantziara joan zen, eta badakit han [Landetan, inondik ere] baso-mutil jardun zuela zenbait hilabetez. Etxekoe-kin harremanetan zen, hala ere, eta, behin, jakinarazi zioten arrebari hein bateko itsumena diagnostikatu ziotela. Jakin orduko, aita etxera itzuli zen, baina amaren anaiek laster esan zioten berriz alde egiteko, ez zela giro. Hurrena, aita Kubara egin zuen, anaia fraideen babesean, eta, badakigu, bestalde, aitaren baso-mutil lagunek Venezuelara ihes egin zutela. Basoko garai hartako argazkiak ere baziren gure etxean. Haiek eskuratzeko, ordean, eta gauza gehiago jakiteko, nire arreba nagusiekin hitz egin beharko zenuke.

AEBetan dira zure arrebak...

Bai. Iraultza gertatu eta gero, haraxe joan ziren noizbait, eta hantxe dira. Nire arreba Toñi duzu etxeko memoriaren gordegia. Hark gure aitarekin basoan lanean jardun zuten lagunaren izenak ere emango lizkizuke. Ez nago xehetasun handirik emateko moduan, etxeko txikiena nintzen eta gauza asko zeharka baizik ez ditut neureganatu, arrebek kontatuta, alegia. Esate baterako, etxean adituta dakit aitarekin batera, baso-mutiletan, lauzpabost laguneko taldea izaten zela, eta haien arteko elkartasuna ez zela alferretan. Etxean kontatzen zuten taldeko bat gaixotu egin zela, digestio-gaitzen bat, nonbait, eta taldekoek gogotik lagundu ziotela Venezuelara emigratu ahal izateko. Eta lortu zuela. Eta badakit gure aita eta gaixotutako hark gutun bidezko harreman luzea izan zutela.

Etxeko txikiena zaitugu, 1950ean jaioa, zenbat aldiz azaldu behar izan dituzu zure jatorriaren zioak?

Behin baino gehiagotan. Batzuetan, atsegin handiz, gogo onez partekatu ditut nire baitako sentimenduak. Beste batzuetan, inoiz, nire jarreraren bat justifikatu beharrez, esan izan dut: "Kuban jaio nintzen, baina nire DNA bestelakoa da, bestelako ezaugarriak daramatzat". "Eta zer ezaugarri dira horiek, jakin baliteke?". Eta, orduan, harrokeriarik gabe, baina urguilu zuzen batekin, euskalduna naizela esaten diet, emigratuen semea. Eta galdetu egiten didatenez, nire euskal jatorri hori zertan den kontatzen dut. Horrek, bestalde, oraingo emigrazio-oldearen zenbait alderdi ulertzen laguntzen dit, ez-bairik gabe.

2021ean 200.000 pertsonak baino gehiagok emigratu dute AEBetara eta ondoko herrialdetara. Garai batean, odolustea zen; orain, hemorragia da"

Zer esan nahi duzu, "oraingo emigrazio-oldearen zenbait alderdi"?

Oraintxe migrazio mugimendu handia dago uhartean [Kuba]. 2021ean, urtarrilean hasi eta urtearen bukaera bitarte-edo, 200.000 pertsonak baino gehiagok emigratu dute AEBetara eta ondoko herrialdetara. Garai batean, odolustea zen; orain, hemorragia da.



Emigratzaile horien artean, 20 urtetik 40 urtera bitartekoak dira guztiz gehienak. Esaterako, Nikaraguara joateko ez dago bisatu beharrik, eta Nikaraguaz gero, batera eta bestera joateko konezioak ezarrita daude, herrialdetik herrialdera ibili, eta Mexikoren eta AEBen arteko mugara heltzen da jendea. Emigratu duten 200.000 mila lagun horiek milioi laurdena ere badira. Hori ikusi, eta bat baino gehiago etortzen zait hau eta hori esaka: “Halako hark ere, emaztea eta haurra bertan utzi eta alde egin du!”. Gaitzetsiz, alegia. Eta nik esaten diet: “Ez arinkeriaz hitz egin. Duela urte asko, gure aitzak horixe egin behar izan zuen”.

Andrea eta alaba Legazpin utzita joan zela Kubara, alegia.

Bai. Ez zen arinkeriaz hartutako erabakia izan, justifikatua baizik. Etxean tematu zitzaizkion, alde egiteko esan zioten, han onik ez zela-eta. Gure aitzak Kubara alde egitea familian kontsentsuatutako gauza izan zen, halaxe erabaki zuen familiak, eta, horrek, gerora, familiarekiko loturari sendo eustea ekarri zuen. Lehenen, gure aitzak ihes egin zuen; gero, gure amak, Liberekin [alaba nagusia]. Gurasoek bizimodua egin zuten Kuban, eta, hemengo familiak behar izan zuenean, laguntzeko moduan zi-

ren, eta lagundu egin zuten. Truke moduko bat izan zen, urteen joan-etorrian, eta ondoko belaunaldien kasuan ere, bizirik iraun duena. Emigrazioaren historia beti-betikoa da, eta, are, baita gure arreba bigarrenaren historia ere.

Dakidanez, Libe hemen jaio zen, Legazpin, baina gainerako laurok Kuban...

Esan nahi dut, Begoñak [arrebetan bigarrena] gurasoen historia berregin zuela... Begoña 1962an ezkondu zen. Laster zen haurdun, eta, berandu gabe, senarrak Kubatik alde egin zuen [Miami]. Begoñak 1963ko martxoan ekarri zuen haurra, baina gure arrebaren senarrak ez zuen haurra 1965eko urrira arte eza-gutu, Begoñak ez baitzuen ordu arte AEBetara joaterik izan, Mexikotik barrena. Hargatik esaten dut Begoñak gure gurasoen historia errepikatu zuela.

Zuen gurasoak, Legazpitik Kubara. Zure senideek, Kubatik AEBetara... Zure anaia Daniel ere saiatu zen alde egiten...

Itsasoz, Cayobarinetik barrena, beste zenbait lagunekin batera. Baina harrapatu egin zituzten, eta kartzelara sartu zituzten. Danielek dioenez, hiru urte eta egun bat egin zituen barruan: 1965eko azaroaren 17tik, 1968ko azaroaren 18ra.



IRAULTZA

“Daniel [anaia zaharragoa] eta biok ikastetxe erlijiosoetan ikasten ari ginen, eta ikastetxea interbenitu zutenean, guretzat ez zen krisirik izan: maiatzean ikasturtea bukatu, eta irailean eskola publikoan hasi ginen. Ez zen etenik izan. Bagenuen apaiz bat, parroko, salestarra, José Vándor Wech, hungariar jatorrikoa, eta berak kontatzen zizkigun epaiketa sumarisimoen berriak, heriotza zigorrak, eta fusilamenduak; besteak beste, Santa Clara inguruan, Manicaraguatik hurre, La Mozakoak”.

FUSILAMENDUAK

“Nerabe nintzen arren, jakin nuen aita Manicaraguara joan zela, heriotzara zigortutako bik, azken borondateko, apaizarekin hitz egitea eskatu zutelako, eta gure aita eskari hura bideratzera joan zen. Halako gauzak ez dira ahazten, jakina. Handik urteetara, Javier Arzuagak liburua idatzi zuen [La galera de la muerte (Gau minean)], eta orduan barrubarrutik jakin genuen zer izan ziren Habanako La Cabañako fusilamenduak. Arzuagaren liburuan, esaterako, gure arreba nagusien lagunak ageri ziren, hasieran harrapatutakoak. Hilak dira haietako batzuk; guztiz gehienek, berriz, emigratu egin zuten askatu zituzten orduko”.

Azken hitza

NEURRIZ

“Nik uste gure aitari neurri handian umoreak lagundu ziola aurrera egiten. Haserretu ere egiten zen inork esaten bazion gauzei ez ziela inportantziarik ematen: ‘Nire ustez eman behar diedan inportantzia ematen diet gauzei, baina neurriz gain ibili gabe’. Eta halaxe”.

Zuen gurasoek bizitza berregin behar izan zuten Kuban. Santa Claran, zehazki. Nola asmatu zuten bide horretan? Zer gorabehera ekarri zizkien 1959ko iraultzak?

Zera bat kontatuko dizut, iraultzarekin loturik dagoena. Mutikoaren ikuspegia da, hala ere. 1962ko urtarrilaren 6an jakin nuen zein ziren errege magoak, hamaika urte nituela. Aurreko irailaren 2an, nire urtebetetzeari, erregalo txiki bat jaso nuen: gerriko bat. Gerrikoa handi nik, ordea, eta amak gorde egin zuen. Eta gabonetan, eta errege egunean, goizean esnatu, zapatak ikustera joan, eta hantxe gerrikoa! Eta amari joan nintzaion: "Ama, erregeek urtebetetzeko erregalo bera ekarri didate!". Eta, orduan, amak goxo besarkatu, eta erregeak gurasoak zirela esan zidan. Aurreko urtean gauzatu zuten interbentzioa, nazionalizazioa, eta gure gurasoek ez zuten ezertarako modurik.

Kito banketxeko aurrezkiak, besteak beste, zuen anaia Danielen bidetik dakidanez.

Kito aurrezkiak eta beste, bai. Orain esango dudana ez da nik ikusia, etxekoan ahozko narrazioaren bidez jaso dut. Ni ez naiz gertatu honetaz oroitzuten. Errege egunaren aitzakian, etxean, patioko izkina batean, sagardo-kutxa bat zegoen, egurrezkoa, arto-landare batzuekin; landare haziak, hala ere. Aitak hura errege eguna baino hilabete lehenago-edo prestatu zuen, eta arrebek kontatzen dutenez, sagardo-kutxa haren barruan kartulina bat zegoen, zera idatzita: "Dena galdu dezakegu, familiaren batasuna ez beste guztia".

"Familiaren batasuna ez beste guztia". Batasun horixe, bai. Gotzain izendatu nindutenean, esaterako, nuntzioa gotzain-armarriaz mintzatu zitzaidan. Nik ez nekien zer zen delako armarri hori, baina azaldu zidan, eta neure gotzain-armarria asmatu behar izan nuen. Eta adiskide batekin hitz egin, eta armarriaren zuztarrean lauburua jarri nuen, adieraziz familia dela defenditu eta babestu behar dugun gauza. Eta, besteak beste, horrexetan saiatzeko gara, lehengusu-lehengusinekiko harremana defenditzen eta babesten, bai hona etortzen naizenean, bai sare sozialen bitartez, Kuban nagoenean. Holguinen



naiz gotzain, baina gurasoek erakutsi zigutenari eusten diot.

Zertan lan egin zuen aitak Santa Claran?

Bazen alargun bat, Vicentica Arttime, bi seme-alaba zituen. Semea Arantzazun egon zen, frantziskotar bidean, nahiz azkenean ez zen fraide egin. Alargun hark senarraren zenbait lursail jaso zituen oinordetzan, baina ez zen haietaz arduratzeko gauza. Eta uste dut gure osaba Pedrok, frantziskotarrak, aipatu ziola alargun hari gure aitaren izena. Legazpiko garaian, gure aitak kontadore lan egin zuen Patrizio Etxeberriaren fundizioan. Beraz, gure aita Vicentica Artimeren ondasunez arduratu zen, administratu zituen, eta, inondik ere, ongi bete zuen bere lana, nik esatea ongi ez badago ere: Vicenticaren ondasunak zuzen administratu, eta, are, oparotasuna ere ekarri zion alargunari.

Eta nola eragin zizuen iraultza ondoko nekazaritza erreformak?

Bi erreforma ere izan ziren. Lehenengoan, jabetzak ez ziren guztiz ukitu: kooperatibizatuta zeuden, eta nekazariak parte zeukaten etekinetan. Bigarren erreforma gauzatu zenean, aldiz, besterik izan zen: orduan bai, nekazariak ezer gabe gelditu ziren, dena kendu zieten. Dakidanez, kalte-ordainen bat jaso zuten, baina barregarrikeria hutsa. Gauza asko ez dauzkat gogoan, arrebak nagusiek kontatuta dakizkit, baina zera hau bai, gogoan daukat, ez da inork kontatua: aitak administratu zituen lursail etako nekazariak kasik gure familia ziren, eta lurretik zetorren ezer ez genuen inoiz eskas izan: ez esnea, ez txerria, ez oilaskoa, ez jaki...

Gaur egun Aranguren Etxeberriarik ez dago Santa Claran...

Gure deiturakorik ez duzu, ez. Baina familia, bai, badugu. Emigrantearen familiaren kasuan, aita-amamari ez duzunean, osaba-izebarik ez, lehengusu-lehengusinarik ere ez... auzoak zeure familia bihurtzen dira. Eta noiznahi hots egiten didate Santa Claratik, halako erori, eta mokorra hautsi duela esateko. Eta hots egiten didate, badakitelako dena delako pertsona horren adiskide minak garena. Eta arrebak ere, eta erbestetik ere, ez diote uzten galdezteari: "Emi, noiz zara Santa Clarara joatekoa?". "Halako egunean". "Bada, joan zakizkio halakori, eta emaiotzu bidali dizudan halako". Batzuetan, dirutxoren bat da; beste batzuetan, sendagairen bat-edo. Eta halaxe joaten naiz gure herrira, Santa Clarara, mezularia banintz bezala, eta horrek gure arteko harremanak are estutzenago ditu.

1959an, iraultza. Interbentzio eta nazionalizazioa. Aitaren anaia bi, frantziskotarrak uhartean.

Iraultzaren alde nabarmendu ziren frantziskotar ez gutxi...

Gure anaia Danielek hobeto kontatuko lizuke, baina badakit gure aitak iraultza egin zuela, lagundu egin zien altxatu zirenei"

Santa Clarako gure etxea frantziskotarrek irlaren erdialdean zeukaten prokuradoretza modukoa zen. Anaia Felipe izenekoak, adibidez, *La Quincena* aldizkaria banatzen zuen, eta gure etxea baliatzen zuen batera eta bestera ibiltzeko. Placetaseko fraideak, Remediosekoak, Capajuanikoak... etxera etortzen zitzaizkigun. Hantxe ziren aita Pertika, anaia Pedro, anaia Bixente, anaia Ximon eta besteren batzuk. Iraultza ondoko garaia, 1962tik 68ra bitartekoa, ez zitzaidan arrotza izan. Ez nuen gogoeta eta analisi sakonik egiteko gaitasunik, baina informazioa jaso nuen, eta hein batean prozesatu ere bai. Gure anaiak [Daniel] hobeto kontatuko lizuke, baina badakit gure aitak iraultza egin zuela, lagundu egin zien altxatu zirenei. Iraultzak bere burua sozialistatzat jo zuenean, ez zen ezer gertatu -gurean, behintzat-, baina ateo deklaratu zenean, orduantxe aldaketa gure etxean, eta, seguruena, aitaren eraginez. ●



Bokazioa

Gustuko dut literatura merke pixka batekin kontatzea Beasaingo Igartza Jauregian erabaki nuela zer izango nintzen ofizioz. Goxo oroitzen dut *Gure erditzearen jabe* liburua aurkezteko antolatu zuten topaketa hura: Estitxu Fernandez eta Ixabel Aleman poderioz hizketan taula gainean; beren parean guraso-elkarte txiki bateko ki-deak adi-adi; eta ia azken ilaran, izkina batean, begirada dezente arraroak jaso genituen bi umemoko, alegia, bakarrik joan ez nedin mesedea egin zidan laguna eta biok. Guraso elkarte hartako burua gerturatu zitzaigun hitzaldiaren aurretik triptiko batekin: “Ez zaituztegu ezagutzen eta, tira, hementxe gure elkartearen informazioa”. Erabat tokiz kanpo geunden. Auskalo zer imajinatu zuten! Lagunak, oraindik ere, erdi lotsatuta akordarazten dit pasa zuen estualdia. Nik, ordea, horrenbeste haluzinatuen, gozamenen beste ezer ez zitzaidala kabitutzean.

Maite dut nire ogibidea. Eraiki egiten nau. Emagin naiz urteko hirurehun eta hirurogeita bost egunetako hogeita lau orduetan zehar. Edonon eta edonorekin; ezinbestean zeharkatzen nauen zerbait da. Identitarioa. Akaso hastapenetako euforia baino ez da izango, ez dakit. Agian, hemendik hogeit urtera edo, *burnout*-ak erabat jota lanbidea utzi eta mertzeriaren batean arituko naiz botoiak saltzen. Baina egun, munduko ofiziorik ederrena dudala esaten dut harro, eta sekulako bokazioa dudala edo

Bokazioaren izenean,
badirudi zilegi dela
langileari berari
exijitzea dituen
errekurtsoak ustiatu
eta bere balioa
garatzeko ardura

antzeko piroporen bat jaso ohi izaten dut bueltan.

Ez ni gaizki ulertu, ordea. Biblia-saltzaile itxura hartu dut oharkabea, baina ez pentsa lanerako grina promozionatzera natorrenik. Izan ere, bokazioa bi ahoko arma delakoan nago. Izan liteke piropo eta izan liteke irain. Bertute eta gabezia. Sari eta zigor. Enpresarentzat loteria ederra da pasioa, hori bai: “Ez dizuegu eskatu diguzuen formakuntza hori emango. Baina, aizue, ez ezazue ahaztu zergatik zaudeten hemen; ez ezazue ahaztu zuen profesioa maite duzuela; erabil itzazue, beraz, zuen ordu libreak, zuen dirua, zuen opor-egunak eta segi tope ikastera”. Egiaz, automotibazioaren eta nork bere mugak gainditzearen tankerako diskurtso erromantikoekin nazkatuta nago aspaldi honetan.



ANA MENDIA
EMAGINA

Bokazioaren izenean, badirudi zilegi dela langileari berari exigitzea dituen errekurtsoak ustiatu eta bere balioa garatzeko ardura.

Eragin anestesikoa ere badu lanerako zaletasunaren diskurtsoak, lan-baldintza kaskarren kontrako errebolta inpultsuak lokartzen baititu kolpe batez: nolatan izango naiz zoriontsu egiten naudenaz kexu? Horratx langileak zintzo fidelizatzeko gakoa: gogoko bidean aldaparik ez. Ez omen da maite dugun horretan jardutea baino luxu hoberik. Ezegonkortasunik ez, ziurgabetasunik ez, lehiarik ez. Eta deskuiduan baten bat gogoz estresatuko balitz, egon dadila lasai, ze bere eskariei erantzuteko behar-bada ez, baina *mindfulness* ikastarorako bada tokirik aurrekontuan.


Bide batez, Jon Kabat-Zinn maisuaren hitzetan, *mindfulness*-a epairik gabe, nahita, arreta osoa unean-unekoari jartzean datza. Noski, ondo pentsatuta zentzuzko estrategia da *mindfulness*-arena enpresentzat. Bestela, izango da epe luze pentsatzen jarri eta erretxinduko denik, eta atsotitzak dioen moduan: eskuak garbitzea baino, ez zikintzea hobe.

Munduko ofiziorik ederrenean ere dena ez da arrosa kolorekoa; ez begirada profesionaletik, ezta begirada laboraletik ere. Horregatik, inoiz Igartza Jauregian umemoko bat haluzinatzen topatuko banu, gorputzean kabituko ez zaiola jakinda ere, zera esango nioke belarrira, badaezpada: azti ibili bokazioarekin. ●

Arteaz gozatzera derrigortuak



AMANCAY GAZTAÑAGA
SORTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Leonidas berak zuzendu izan bagintu bezala, goizeko hamaiketan beroketak amaitzen gabiltza eszenatokiko teloi beltzaren atzean. Gure Xerxes: 300 nerabe, antzerkia ikustera derrigortuak izan direnak. Derrigortu, zer hitz zatarra. *Antzerkia* eta *derrigorrira* hitzek ez lukete inoiz esaldi berean idatzita egon behar, baina hemen daude, hiru ikastetxetako DBHko ikasleak eta irakasle gutxi batzuk, antzerkia ikustera derrigortuak.

Gazteak oihuka sartu dira, une labur batez askatuak izan diren animalia basatien antzera. Gu bero-bero gaude. Badakigu gutxi garela guzti horien aurrean, ez da erraza izango, baina dugun materiala ona da eta konpainia ezin hobean gaude.

Eskutik heltzen diogu elkarri. Argiak itzaltzen diren momentuan oihuek gain hartzen dute aretoan. Zenbat aldiz etorri ote dira gazte hauek antzerkia ikustera? Zenbat aldiz derrigortuak? Zenbat aldiz plazeretik? Badakite plazera eta antzerkia bateragarriak direla? Eszenatoki barrura goaz hiru aktoreak.

Isilik, iluntasunean, taula gainean tarte bat hartu dugu, telepatikoki elkarri "itxaron pixka bat, isilduko dira"

esan diogun bitartean. Pertsonaien lehen barreekin eszenako argiak piztu dira. Hemendik aurrera geraezinak gara obraren amaieraraino, etengabe aurrera doan baporezko Titana.

300 horietatik hamar goian eseri dira, azken besaulkietan. Ez dira isiltzen, ez dira isilduko, eta ez dira isildu. Patriarkatuaren seme diren horien zurrumurruek amaieraraino lagundu gaituzte.

Gaurkoa neketsua izan da, bultzaka ibili garen sentsazioarekin geratu zait gorputza. Ikasleak aretotik irteten diren bitartean irakasle bat gerturatu zait. Zer moduz joan den galdetu dit, beraiek ez dutela ikusi, nonbait kafea hartzera irten dira.

Etxera iritsi baino lehen ama dut deika: "Zer gertatu da gaur antzerkian?", "Betiko hamarrek beraien buruak boikoteatu dituztela, ama" erantzun diot. Nola enteratu den kontatu dit: gure amonaren zaintza partekatzen duen erizainari gutun bat bidali diote eskolatik. Gaur ikasleak gaizki portatu direla antzerkian eta ez dela horrela geratuko esanez, kastiguak eta errepresaliak egongo direla.

Betikoa, nerabeak kastigatu eta listo. Nola nahi dugu nerabe horiek antzer-

kiaz disfrutatzea, disfrutatzen irakasten ez badiegu? Nola nahi dugu kulturarekiko errespetu hori erakustea, batzuetan irakasleek beraiek ere erakusten ez badute? Nola nahi dugu antzezlan batez gozatzea, kulturak piper bat ere balio ez duen hezkuntza sistema batean sartuta badaude?

Ez, barkatu, baina ez; gaur gertatu dena gizartearen isla izan da. Hamar horiek egin dutena, berriz, ikusten duten horren errepikapen soil bat. Kastigua merezi dute? Orduan guztiok merezi dugu. Institutuek beren buruak kastigatuko dituzte, antzezlanari berari edo antzerkiari sistema horren barruan tarterik ez uzteagatik? Agian hamar horiek ere kafea hartzera irten balira...

Ez zait sumindura kabitzen iritzi honetan. Bai esperantzarako tarte, ordea. Herriko Gaztetxokoak hamar ikasle horiekin biltzeko tarte emango digu, bai beraiek eta bai guk sentitu dugunari buruz hitz egiteko.

P.D.: Badakit ez dela erraza irakasle izatea, etxean bizi izan dut hori. Lan delikatu eta garratzitsu horri duintasuna eman behar badiogu, ordea, hezkuntza sistemak goitik behera aldatu beharko du. ●



MIKEL BASABE
KORTABARRÍA
IRAKASLEA

Hezkuntza-lege berririk ez, eskerrik asko

Oraingo, argi dugu Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-lege berria, indarrean jarriko balitz, euskararentzat kaltegarria izango dela. Argi dagoen bezala EAEko legea ez dela autonomia erkidegotik Euskal Herri osora esportatuko eta hezkuntza-eredu propiorik ez dela izango Espainiak eta Frantziak gure hezkuntza-sistemaz (publikoaz zein pribatuaz) erabakitzen duten bitartean.

Argi dugu hezkuntza bidegurutzan dagoela, aldaketa premian, emaitza hobekuntza behar beharrean. Askotariko hobekuntzak behar badira ere, nik euskarari begiratu diot. Honela:

1. **Hezkuntza lege honi ez!** Berritu 1/1993 Legea, Euskal Eskola Publikoarena. Zergatik? Euskal eskola publikoak ez duelako 3L ereduaren ezarriko dion legerik behar –murgiltze-eredu unibertsalaren bidean baitago–, baizik eta garai berrietara egokitzeko aukera emango dion lege berria. Legea egokituz, ikastetxeen autonomia benetan sustatu, boteatzeko; sare publikoa bihurtu diru publikoaz egin dako espermentazioen erdigune; ziurtatu euskara-eskolak emateko bitarteko berriak (pedagogikoak, metodologikoak, langileak...).

2. **Deskontzertatu! Eskerrak publikoari, ezkerak publikoak.** Aurreko puntuan aipaturiko lege berriak **ikastetxeen**

autonomia bermatu beharko luke. Zertarako? Bada, besteak beste, ikastolei publikora pasatzeko aukera emateko (Katalunian, dekretu bidez dago araututa): irakasleak egonkortuta, jarraituko lukete irakaskuntzaren nondik norakoak berek gelaratzen. Alegia: gaurko (ustezko) eredu propioa mantenduko litzateke. Horrela, euskarazko irakaskuntza oraindino gehiago orokortuko litzateke, baina, garrantzitsuagoa, eskola kontzertatuari ez litzaiokoe babes ideologikorik emango... klasismotik/fedetik kanpora.

3. **Eskolak, bakarrik ezin.** Datu ofizialtan oinarritutako diagnosa eta aurrera begirako proposamena egin behar dira. Horietan, datu ofizialen irakurketa ofiziala ñabartzeaz eta, zenbaitetan, ukatzeaz gainera, planteamendu orohartzailea egin beharko da. Murgiltze-eredua mantendu, bai, eta metodologia berriak proposatu, ingurune soziolinguistikoaren arabera koak eta erabilera sustatzeko pentsatuak beti. Hori guztia nahikoa ez denez, eskolaz kanpoko aisialdirako planteamendu orokorra egin behar da, udalerriz udalerriz, hizkuntza eskolatik kanpora ere zabala. Eta, batez ere, ikuspegia aldatu: ezin dugu euskalduntzea soilik hezkuntza-sistemaren bizkar utzi.

Bidegurutzan hartuko den erabakia ez dakigula gurutze-bidea izan. ●

Harritzeak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA
ETA IDAZLEA

Harritu da ama, berak deus ere galdetu gabe, tabernan sartu eta egunkari bat eskura eskaini diotenean: *“Aquí tienes, Blanca.”* Harritu da, egunkaria eman dionak amaren izena zekielako, behin ere harekin hitz egin ez badu ere. Barran eskatutako bi kafeak hartu eta mahaian jarri gara. Orduan etorri da amak bolumen apalean egin didan komentarioa (gaztelaniaz): *“Tabernan isilik dauden beste batzuek ere ederki jakingo dute ospitalean eman dudana aldiaren berri.”*

Harritzekoa da, izan ere, gutaz zenbat dakiten ingurukoek, askotan edota aldiaren behin ikusten gaituzten beste ho-

riek: gure izena, gure lanbidea edo langabezia, gure harremanak, gure gorputzaren eskasia... Harridura unibertsala da, nonbait ere: sentimendu aski bitxia sortzen du ezagutza horretaz ohartzeak.

Alabaina, ez gara harritzen gu haiek garenean, eta besteen gainean aritzen garenean: haien izenaz, haien lanbidez edo langabeziaz, haien harremanez, haien gorputzaren eskasiaz... Ez gara harritzen beste batzuk gurekin harritzen direlarik.

Eta, urte zaharraren eta berriaren arteko trantsizio honetan, ez dakit zerk sortzen duen harridura handiagoa nigan. Harritzeak. Ez harritzeak. ●

Euskal Herria ez da saldu digutena



ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Duela bi urte heldu nintzen Euskal Herrira. Noan lekura noala, bisitan bada ere, tokian tokiko oinarri materiala ulertzen saiatzen naiz: zeintzuk diren sektore nagusiak, langabezia tasa, KPIa edota bertako gutxieneko soldata. Konbentzituta nengoen baserritarren herri batera helduko nintzela, garapen nazionalaren beharretara lerratutako burgesia industrial indartsu batekin eta, turistifikatutako Herrialde Katalanen aldean, lan baldintza ez hain prekarioduna. Hala ere, topatu dudak errealitatea ideia hartatik oso urrun dago: merkatu libreari esker, Euskal Herria ere tertziarizatzen ari da eta inbertsio funtsak ez dira soilik etxebizitzetaz jabetzen ari.

Badira urte batzuk arrisku-kapitaleko eta bestelako funtsen presentzia hazi dela euskal enpresetako akziodun nagusien artean. Funts horiek enpresen kontrola hartzen dute, Euskal Herriaren garapen interesekin kontraesanean dagoen agenda bat inposatuz. Esaterako, BM eta Amara supermerkatuen jabe den Uvesco enpresa, Angulas Aguinagaren jabe ere baden PAI Partners funts fran-

Lehen bertan ekoizten zena, orain kanpotik erosi behar dugu. Hortaz, ezin dugu erabaki zer eta nola ekoizten dugun, ezta nola banatzen dugun ere

tsesak erosi du aurren. Cinven, KKR eta Providence funtsen jabetza da Euskaltel, Masmovil enpresari lau xoxen truke saldu ostetik. ITP, Bain Capital-ena da, Aernnovan Towerbrook funtsa da partaide nagusi, Solapark Danimarkako EQT inbertsiofuntsak erosi du, eta abar luze bat.

Enpresa itxierak, deslokalizazio partzialak zein erabatekoak, horietatik eratorritako kaleratzeak... Euskal Herrian

industria-enplegua eta horri lotutako zerbitzuak suntsitzeko joera argia da. Arabako industria-enplegua %4,5 murriztu da 2009tik 2022ko hirugarren hiruhilekorako tartean, Bizkaian %10,49, Gipuzkoan %16,67 eta %5 Nafarroan. Hala ere, jaitsiera askoz nabarmenagoa izan da lehen sektorean: %38,46 Araban, %66,67 Bizkaian, %35,29 Gipuzkoan eta 31,16 Nafarroan. Aitzitik, zerbitzuen sektorean, non soldatak askozaz baxuagoak diren, %8,23 igo da Araban, %11,03 Bizkaian, %8,18 Gipuzkoan eta %15,73 Nafarroan.

Ekoizpen-mailako aldaketa horrek Euskal Herriko langile ororen soldate-tan eragin zuzena izateaz gain, kanpomendekotasun handiagoa ere sortzen du: lehen bertan ekoizten zena, orain kanpotik erosi behar dugu. Hortaz, ezin dugu erabaki zer eta nola ekoizten dugun, ezta nola banatzen dugun ere. Eredu honek prekarizaziora garamatza eta zuzenean egiten du euskal herritarren aurka, ez garelako uste bezain baserritar, ez industrial, eta beraz, ezta burujabe ere. ●



**Eskerrik asko urte hauetan guztietan
gure ondoan egon zareten denoi**

Denok gara txori urdinak



ZIGOR
OLABARRIA OLEAGA



Santiren hitzak paperera ekarri eta *Txori Urdinak* idatzi izanaren albo-kalte ederrenetako bat izan da tokian tokiko aurkezpenetan ondoan izan dituden pertsonak entzutea; preso ohiak gehienak, baina ez denak.

Gasteizko Hala Bediren lokalean, Santiren arreba Silviak mahai gainean jarri zituen espetxeak pobreziarekin duen lotura estua eta preso senideen kondena ezkutua. Mitxelek preso sozial eta politikoen arteko alde biko elkartasuna gogoratu zuen, eta azpimarratu sozialek euskal preso politikoei emandako babesa. Kontatu zigun Santik bizi izan zituen FIES galeria izu-ikarazko haietan euskal preso politikoa bakarrik sartu zutela, hura hiltzea helburu.

Donostiako Teila Fabrika, Anselmoko, Villabonako espetxeko ardogle klandestinoak, gorazarre egin zion bizipozari, espetxeari bizirauteko arma gisa, eta kide izan zuen Santiren nobleziari. Bilbiko Arrokan, Julenek eta Josuk kontatu zizkiguten Santirekin partekatutako hainbat bizipen, kontatu ezin direnak.

Iruñeko Laban, Idoiak punitibismoa eta patriarkatua lotu zituen, eta eraso matxisten kudeaketa ez punitiboen argi-itzalak azaldu zizkigun, eta gizonok egiteko ditugun etxeko lanak nabarmendu. Defendatu zuen komunitateak hartu behar duela gatazkak kudeatzeko ardura.

Bilboko Biran, Atxarte ados azaldu zen gatazkak epaitegietatik atera eta komunitatera bueltatzearekin... Baldin eta komunitatea eta geure burua eraldatzeko gai bagara: egun, "nahiago agian Auzitegi Nazionaleko epaile batek epai nagan, komunitateak baino", bota zuen probokatzailerik. Itziaz, espetxetik audioz, azpimarratu zuen ezkerretik espetxearen gaiari heltzeko beharra, kartzela guztiak eraitsi eta

Espetxeak hil dituen,
espetxean bizirik
ehortzita dauzkaten eta
espetxeari biziraute
dioten guztien alde.
Denok gara txori urdinak

gaurdanik alternatibak bultzatzeko.

Baionako Epaian, Lorentxa argi mintzatu zen espetxearen biolentziak presoan elikatzen duen gorrotoaz, kaleratu berritan errepidean aurkitu zuen Guardia Zibilaren kontrolaren aurka buruz joateko pultsioa gogoan. Maitek arrazoi eman zion hitzaldi osteko potean: borroka armatura batzean inori kalte egiterik ez zuela helburu, baina espetxean kartzeleroekin jakin batzuei min egitea amestu zuela.

Trago baten bueltan, Iratik kontatu dit *Txori Urdinak* sartu diola lagun preso bati. Mikelek esan diola irakurketak berriz biziarazi dizkiola lotara egunkari paperean bilduta joaten zen urteak, gauetan kartzeleroekin ziegetara egiten zuten bisitetako batean berean sartu eta jipoituko zuten beldurrez. Josek nabarmendu du Santik oso ondo azaltzen dituela urte askoren ondoren kalera-tzearen zailtasunak.

Gasteizko Errekaleorren, Ekaitzek aitorza egin zien Salhaketa gisako elkar-teei, preso baztertuenez arduratzeagatik eta ikuspuntu abolizionistak elikatzeagatik. Asierrek oroitu zuen espetxean ostiralei "*Walking Dead* eguna" deitzen zietela: asteburuetan espetxean medikurik ez zegoenez, farmakoen erabat menpeko

zeuzkaten presoek eguneko ordez hiru egunetarako pilula dosia batera ematen zietelako; zorbiz betetako patioaren irudia zinez zela beldurgarria dio.

Ortzaizeko Mentan, Filipek kontatu zigun nola eman zioten su segurtasun goreneko espetxeari, preso sozial eta politikoei bat eginik, eta nola zigortzen zituen bat egitea haiek espetxeak. Inharrek espetxea gizarte kapitalistaren muturreko isla dela azpimarratu zuen, eta bata eraisteko bestea gauditu behar dela. Oskarrek gogoratu zuen zer babes eman zioten FIES presoekin bere espetxealdian, eta nola esan zioten, Mitxelek aipatutako euskal preso gogoan: "Ez dakigu nola irten den zuen kide hori bizirik FIES galeriatik".

Galdera horren erantzuna Mitxelek berak eman zuen hilabete batzuk lehenago, Gasteizko estreinako aurkezpen hartan. Euskal preso horrek berak kontatu baitzion, artean biak espetxean zeudela, nola lortu zuen bizirik irtetea: "Paco Ortiz-i esker nago hemen". Paco Ortiz, FIES preso, kanpoan banku atrakatzailerik, barruan iheslari, borrokalari, mutinzale. Giltzapean 23 urte zeramatzalarik, bere buruaz beste egin zuen. Bizirik da, ordea, hark heriotzatik salbatu zuen preso; berriki gurutzatu du Santik espetxean, berriz ere; *Txori Urdin* alea eskuan agurtu du Puertoko aspalduko laguna. Mitxelek Pacoren agur gutunaren amaiera irakurri zigun bere hitzartzea amaitzeko: "Hil egingo naiz. Negatibik, nire kide guztiengatik, gizaki ororen duintasunagatik; mundu aske batengatik, esna dauden pertsonen bete, eta espetxerik gabea". Espetxerik gabea.

Espetxeak hil dituen, espetxean bizirik ehortzita dauzkaten eta espetxeari biziraute dioten guztien alde. Denok gara txori urdinak. ●

BURDIN AROA

Bidaia bat protohistoriako Euskal Herrian barrena

Irulegiko eskuaren aurkezpen publikoak jendartean nabarmen piztu du duela bi mila urte baino gehiagoko Euskal Herria nolakoa zen jakiteko grina. Zorionez, Burdin Aroko arkeologiak tradizio luzea du gurean, eta garai hartako zenbait aztarnategi ezagutuz iraganera bidaia txiki bat proposatzen dizuegu hemen, euskal lurraldeetan barrena.

 **JOSU NARBARTE HERNANDEZ**

Protohistoriaren inguruko ikerketak, beste hainbat arlotan bezala, XX. mende hasieran abiatu ziren Euskal Herrian, Telesforo Aranzadik, Joxemiel Barandiaranek eta Enrike Egurenk 1916an osatu zuten taldearen eskutik. Lehen lanak monumentu megalitikoaren identifikazioan eta katalogazioan zentratu ziren batez ere, baina 1936ko Gerraren ondorioz eten egin ziren.

Ondorengo hamarkadetan, hala ere, ikerketek pixkanaka suspertze bidea hartu zuten, eta 1957an Barandiaranek lehen indusketa-programa

zuzendu zuen Burdin Aroko herri gotortu batean: Albizturren dagoen Intxur izenekoan. Halako lanak nabarmen ugairitu ziren 1970eko eta, batez ere, 1980ko hamarkadetatik aurrera, ikerlari eta talde berrien sorrera eta bultzadagatik.

Horri esker, Burdin Aroaren azken faseetako ondare kultural aberatsa dugu gaur egun. Aztarnategi ugari induskatu dira, bertako biztanleen egitura eta bizimodua berreraiki ditzakegu, eta erromainizazioaren eraginari buruz ere gero eta gehiago dakigu. Goazen zenbait adibide ezagutzera.





ARROLA

Burdin Aroko herri gotortuetan, Euskal Herrian hobekien kontserbatu dena Bizkaiko Busturialdean dago, Arratzun, Arrola mendian. Marueleza izenez ere ezaguna, oppidumak ia 13 hektarea zituen eta murre sendoz eta sarrera bihurgunetsuaz (irudian) babesturik zegoen. / EUSKO JAURLARITZA



IRULEGI Lakidainen, Nafarroaren erdialdean kokaturik, baskoien bihotzean zegoen Irulegiko herrixka, ia 900 metrora eta gune estrategikoan. Antzinaroko euskarazko testu zaharrena daraman brontzezko eskuagatik ezaguna, balio handiko Burdin Aroko pieza gehiago eta eraikinen aztarnak ere aurkitu dituzte.

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

IRULEGI, ESKUA BAINO ASKOZ GEHIAGO

Lakidainen dagoen Irulegiko herri gotortua da, ziur aski, azken aldian zeresan handiena eman duen aztarnategia. Aranzadi Zientzia Elkartea 2007tik ari da han lanean, Arangurengo Udalarekin elkarlanean. 2018tik, Mattin Aiestaran arkeologoak hartu du lanen zuzendaritza.

Aztarnategia izen bereko mendiaren gailurrean kokatuta dago, ia 900 metroko garaieran. Giza-okupazioen zantzuak Brontze Arotik abiatzen dira, K.a. XIV.-XII. mendeen bueltan. Ordutik, ikerlariak gainjarritako hainbat faseren aztarnak aurkitu dituzte, mila urtetik goitiko historia baten lekuko. Hala ere, Burdin Aroaren bukaeran izan zuen herriguneak bere loraldia, K.a. IV. eta I. mendeen artean. Garai horretan, izaera ia urbanoa izatera iritsi zen Irulegi: mendi gailurrean lubanarroaz inguratutako akropoli edo gotorleku bat zeukan, eta haren inguruko magaletan kokatzen ziren bizitokiak. Miaketa geofisikoei zein indusketei esker, arkeologoek kale baten inguruan antolatutako zenbait etxeren planoak identifikatu ahal izan dituzte; haietako baten aurrietan agertu zen, hain zuzen

Ez dakigu nola iritsi zen "Barkoxeko altxorra" Pirinioez bestaldera. Iradoki izan da Sertorioren gerratik ihesi joandako norbaitek ezkutatuko zituela hor denarioak

ere, euskararen historiari astindu ederra eman dion brontzezko eskua. Herri horren inguruan mendi osoa inguratzen zuen harresi monumentala eraiki zuten; 12 hektarea inguruko azalera ixten dute, eta ikerlariak uste dute, biziguneak ez ezik, laborantza-guneak ere bazeudela *oppidum* horren barruan.

Baskoien lurraldean kokatuta egonik, Irulegiri bete-betean eragin zion Ser-

torioren gerrak. Oraindik ez dago argi baskoia zein bandorekin lerratu ziren. Argi dago, hala ere, erromatar armada baten eraso jasan zutela K.a. 75. urte inguruan; herria guztiz erre zuten, eta biztanleak ihesi atera ziren beren ondasun guztiak giblean utzita. Erasoren ostean, handik kilometro gutxitara Iruñeko hiri erromatarra hasi zen garatzen, eta Irulegiko herrixka ahaztuta gelditu zen, arkeologoak iritsi arte.

GERRA-OIHARTZUNAK, EBROTIK PIRINIOETARA

Irulegiren suntsiketa ez zen gertaera isolatua izan. Ugariak dira Sertorioren gerrak egungo Euskal Herrian izan zuen eragina erakutsi duten aurkikuntza arkeologikoak. Hego-mendebalderantz joanik, La Custodiako herri gotortua, Vianan, beste adibide esanguratsu bat da.

Javier Armendarizek gidatuta, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikerlari-talde bat ari da bertan lanean. Kasu honetan ere, izaera ia urbanoa zuen herri gotortu bat zen, baina ez dago argi Antzinaroan baskoien ala beroien lurraldeari ote zegokion. Badira *Uarakos* izeneko hiria aipatzen duten lekukotza



Arrola



Gastiburu



Barkoxe




Babio



Intxur



La Custodia



Irulegi

Herri gotortuak

1. Irulegi
2. La Custodia
3. Intxur
4. Basagain
5. Buruntza
6. Munoandi
7. Arrola
8. Kosnoaga
9. Berreaga
10. Babio

Bestelako herriak

11. Zarautz
12. Santiagomendi

Aurkikuntza isolatuak

13. Barkoxe

idatzia, eta bertan aipatzen dira lehen aldiz beroiak. Herri hori zeltiberiarra zatekeen. Hain zuzen ere, arkeologoek eremu kultural horretako elementuak aurkitu dituzte Vianan. Kasu honetan ere, eraso bortitz baten aztarnak azaleratu dituzte, kaleetan hilda gelditutako biktimak barne.

Bitxiagoa da Barkoxeko altxorren kasua. 1879ean, Ezpelea etxeko andreak inguruko lursail batean lurperatuta aurkitu zuen, ustekabea, zilarrezko 1.700 denario baino gehiago gordeta zituen ontzi bat. Émile Taillebois numismatikaren adituak aztertu, eta ondorioztatu zuen Ebro inguruko txanponak zirela, baskoien lurraldekoak; zenbaitetan, Barskunes izeneko txanpon-etxearen izena ere bereiz daiteke, besteak beste. Erromatar txanponik, aldiz, ez zegoen batere.

Gaur-gaurkoz ezinezkoa da jakitea nola iritsi zen altxor hori Pirinioez beste aldeko txoko horretara, egungo Zuberoara. Aurkikuntzaren ezaugarriak kontutan hartuta, iradoki izan da Sertorioren gerraren testuinguruan ihesi joandako norbaitek ezkutatuko zituela hor. Beste zenbaiten aburuz, aldiz, bertako tribuak Sertorioren alde jarri izanaren froga izan liteke, Zesarrek aipatzen baitu akitaniarrek Iberiar penintsula iparreko buruzagien laguntza jaso zutela, eta horiek Sertoriorekin trebatuak zirela. Hipotesi guztiak irekita daude, beraz.

LURRALDEA ZAINTEZKO TALAIAK

Baina, inon izatekotan, kantauriar isurialdean jaso dute Burdin Aroko herri gotortuek arkeologoen arreta. Hainbat hamarkadetan garatutako lanei esker, neurri desberdinetako hainbat aztarnategi azaleratu dira. Gipuzkoan, Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlariak nabarmendu dira, Foru Aldundiarekin elkarlanean; Xabier Peñalver, Carlos Olaetxea eta Sonia San Jose arkeologoek, adibidez, hainbat lan egin izan dituzte Intxur (Albiztur), Basagain (Anoeta), Buruntza (Andoain) eta Munoandi (Azkoitia) herri gotortuetan, emaitza ikusgarriekin. Araban, elkarte bereko Jon Obaldia arkeologoak hartu du, azken urteetan, Babioko herri gotortua (Izoria, Aiara) ikertzeko ardura. Bizkaian, Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak sustatu dituzte hainbat ekimen, besteak beste Berreaga (Mungia), Kosnoaga (Gernika-Lumo) eta Arrola (Arratzu) herri gotortuak ikertzeko.

Azken hori da hobekien kontserbatu direnetako bat. Izen bereko mendiaren



BARSKUNES Baskoien lurraldean egon zitekeen txanpon-etxe batean jaulkitako denarioak hainbat tokitan aurkitu dituzte. Bereziki harrigarria izan zen "Barkoxeko altxorren" aurkikuntza, 1879an Barkoxeko Ezpelea etxeko andreak bere ataritik lurrazaleratu baitzituen halako ehundaka. WIKIPEDIA

Burdin Aroko ikerketa arkeologikoen baitan, azken aldian gero eta argiago gelditzen ari da garai hartako gizarteak ez zirela soilik herri gotortuetan bizi

gailurrean dago kokatuta, eta ikuspegi bikaina du Urdaibaiko itsasadarreantz zein Oiz mendialderantz. Azken indusketak 2004. eta 2006. urteen artean egin ziren, Mikel Unzueta arkeologoak zuzenduta. Aztarnategiak 8 eta 13 hektarea arteko hedadura hartzen du, harrizko murru gotorrez inguratuta; horiek 7-8 metroko lodiera dute oinarrian, eta 5-6 metroko garaiera hartzen dute. Mendealdean, bihurtuz osatutako sarrera monumentala induskatu dute arkeologoek, herriaren izaera gotortua agerian utziz. Etxeak harresiaren barruko aldeari atxikita daude; laukizuzen-itxurako planta dute, eta harrizko oinarria. Hormak zurez zein pezo eginda zeuden, eta lastozko estalkiak zituzten.

Arrolatik metro gutxira Gastiburu izeneko aztarnategia dago, hau ere Burdin

Arokoa. Luis Valdes arkeologoak ikertu zuen 1980ko hamarkadan, eta santutegi baten aztarnak direla uste du. Pentagono itxurako plaza baten inguruan, ferra forma duten bost egitura daude, harmailak balira bezala kokatuta.

Bi aztarnategiak, Arrola eta Gastiburu, konplexu berberaren parte zirela pentsatzen da, karistiarren lurraldean kokatuta. Aurkitutako material arkeologikoez gertatzen konplexu baten irudia ematen dute, nekazaritza eta abeltzaintza dibertsifikatu batekin eta beste herri batzuekiko elkartrukeekin. Egitura gehienak K.a. IV.-III. mendeetan eraiki ziren, eta garapena izan zuten K.o. I. mendera arte. Haatik, une horretan erromanizazioa sendotzen hasia zen euskal kostan ere, eta horrek lurralde-hierarkiak aldatzea ekarri zuen. Ez dago argi Arrolak erasoren bat jasan zuen ala pixkanaka husten joan zen baina, K.o. I. mendean, zentraltasuna galdu zuela dirudi, Foruko hiri erromatarraren mesedetan.

HERRI GOTORTUETATIK HARATAGO

Burdin Aroko ikerketa arkeologikoen baitan, azken aldian gero eta argiago gelditzen ari da garai hartako gizarteak ez zirela soilik herri gotortuetan bizi. Aitzitik, lurraldearen okupazio-eredu dibertsifikatu bat islatzen duten zenbait aurkikuntza nabarmendu behar dira; eta, are interesgarriago dena, badirudi horietako batzuk jarraipena izan zutela erromanizazio-garaian eta ondoren ere.

Zarauzko Santa Maria elizan egindako indusketak dira, ziur aski, adibiderik



INTXUR Albizturren kokatzen da Intxur edo Iruntxurgo aztarnategia, Murumendiko mendilerroan; Gipuzkoan aurkitu diren Burdin Aroko herrixka ugarietako bat da. Ezkerreko irudian indusketa lanetan mende hasierako argazki batean. Eskuinean, Irulegin, duela gutxiako argazkian. Normalean muino baten gainean eraikitzen zituzten halako gotorlekuak.

interesgarriena. Alex Ibañez eta Nerea Sarasola arkeologoek zuzendu zituzten lanak 2000ko hamarkadan, emaitza harriarriekin: gunea etengabe okupatuta egon da Burdin Aroz geroztik, eta fase desberdinen zantzuak ikus daitezke, egun ere, tenpluaren lurzoru azpian. Okupazio-zantzurik zaharrena K.a. V. mendean eraikitako etxe baten arrastoak dira; itsas-bazterrean eta egungo herrigune baten erdian aurkitutako lehena, hain zuzen ere. Laukizuzen-planta zuen eta egurrez eginda zegoela dirudi, indusketetan ez baitzen horma-arrastorik agertu. Zoruaren bazter batean, aldiz, beheko su baten aztarnak agertu ziren, eraikina berotzeko zein sukalde-funtzioarekin. Eredu osoan eskuz egindako zeramika-zatiak ere agertu ziren.

Etxe honen gainean, erromatar moldeko eraikin publiko bat azaldu zen, K.o. I. mendean jaso. Izan ere, Zarauzko portuak –eta, bertatik kilometro gutxira, baita Getariak ere– garrantzia hartu zuten erromanizazioaren garaian, Atlantiar ozeanoaren inguruan osatutako *Via Maris* merkataritza-sarearen barruan. Hala, zenbait ikerlariek uste du aztarnategi hauek iturri klasikoetan aipatzen den *Menosca* gunea barduliarrarekin identifika daitekeela; baina hipotesi hori berretsi gabe dago oraindik.

Santiagomendi da beste aztarnategi garrantzitsu bat. 1990eko hamarkadan

hainbat zundaketa egin zituen Maite Izquierdo arkeologoak, eta berrikiago Aranzadi Zientzia Elkarteko Manu Zerberiok hartu du lekukoa. Gunea izen bereko mendian kokatuta dago, Astigarragan, Urumeako itsasadarraren gaineko ikuspegi ezin hobearekin. Ikerlariak hainbat egitura induskatu dituzte, eta Burdin Aroko zeramika ugari ere agertu da; haatik, harresi-zantzurik ez dago, eta hortaz uste dute gotortu gabeko bizitegi-multzo bat egon zela bertan. K.a. V.-I. mendeetan izan zuen bere garapen handiena, eta agian iturri klasikoetan aipatutako *Morogi* izeneko *oppidum* barduliarrarekin identifika liteke –Murgia toponimoa Astigarragan kontserbatzen da oraindik–. Babesleku naturalak baliatuz, muinoetan eta goi-ordokietan gizakiak harresiz itxita gotorleku eta gune urbanizatuak ziren *oppidumak*; eta normalean inguruko lurraldearen kontrola izaten zuten kokapen horren bidez.

Astigarragako kasu honetan erromanizazioak lurralde-hierarkien aldaketa bat eragin zuela ikus daiteke: Santiagomendiko herrixka ez zen berehala desagertu, baina K.o. I. mendean bere garrantzia gutxitzen joan zen pixkanaka, Kontxako badia inguruan dokumentatu izan diren aztarnategi erromatarren mesedetan, azkenean abandonatuta gelditu arte.

Bidaia labur honetan ikusi dugunez, oparoa izan da Burdin Aroko arkeologiak Euskal Herrian eman duen uza. Beste hamaika aztarnategi ere ikertu dira, eta lanak aurrera darrai: indusketak, topografia, materialen azterketa eta datazioa laborategi espezializatuetan, dibulgazioa, eta abarrekin. Ikerlarien, tokiko eragile eta herri-ekimenen, hezkuntza-erakundeen eta administrazioen arteko elkarlanaren emaitza da ezagutza zientifikoa, eta ezinbestekoa da guztien konpromisoa, gaur arte marraztu dugun mapa txiki hau osatzen jarraitu eta duela bi mila urte baino gehiagoko arbasoen bizimodua hobeto ezagutzeko. ●





Euskal Y-ak ez du lagunduko kamioia errepidetik trenbidera eramaten

Hori da EHUko hiru irakaslek egindako ikerketaren ondorio nagusietakoa. Haien arabera, 2012ko salgai kopuru berdintsua garraiatuko du *Euskal Y-ak* 2030ean, ordurako abian jartzen bada. Bidaiariei dagokienez, 2030erako *Euskal Y-ak* 5,8 milioiko bidaiari dentsitatea izango duela aurreikusten da. Mundu mailako kalkulu estandarren arabera, abiadura handiko linea bat errentagarri izateko, urteko bidaiari dentsitatea 10 milioi bidaiarikoa litzateke.

 **XABIER LETONA BITERI**

Azterketa lana EHUko Gorka Bueno, Andoni Kortazar eta David Hoyos irakasleek egin dute, erakunde publikoek egindako azterketetan oinarrituta. Bidaiari datuak Espainiako Trenbide Egituretakako Kudeatzaileak (Adif) 2015ean egindako azterlanetik atera dituzte (publiko egindako azkena da). Salgaien garraio kalkuluak, ordea, Arabako Jundizeko industriagunean egiten ari diren tren terminalerako datuekin egin dituzte batez ere. Terminal hau klabea da salgaien garraiorako, han egingo



direlako iparraldetik zein hegoaldetik datozen salgaien transakzioak trenbide mota batetik bestera.

EHUko Ekopol taldeko kideak ere badira hiru irakasleak eta argitaratutako artikuluan ohartarazten dute ez dela ulergarria Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburu Iñaki Arriolak ez ematea daturik *Euskal Y*-ak izango duen salgaien garraioaz: “Harrigarria da EAEn inoiz proiektatu den obrarik garestienak, lanak 1992an hasi zirenetik jada 30 urte bete direnean, itxuraz 10.000 milioi euroko inbertsioa justifi-

katzen duen garraio eskari azterketa sendorik ez izatea”.

Datuak egon badaude, ordea, eta Garraio Sailak berak emandakoak dira hiru irakasleek azterketa hau egiteko erabilitakoak. Horregatik, harrigarria iruditu zitzaion, *Gara* egunkariari azaroaren 28an emandako elkarrizketan Arriolak adieraztea ez zekiela *Euskal Y*-ak eramango zuen salgaien kopuruez. Eta, besteak beste, horregatik erabaki zuten aipatu dugun artikulua Ekopolen argitaratzea. Berez, artikulua hori, irakasleak *Euskal Y*-aren ingurumen eraginaz prestatzen ari diren

beste zabalago baten zati bat da. Haiek 2016an egin zuten euren ingurumen azterketa, eta orain dituzten azken datuekin gaurkotuko dute.

Edozein modutan, ikerlariak dagoneko zalantzan jartzen dute eraikitzen ari diren azpiegitura erraldoiaren errentagarritasuna: “Urte hori erreferentziatzat hartuta (2030), agerian dago eskari horrek ez duela bermatzen gutxieneko errentagarritasun sozioekonomikoa, eta ez duela lagunduko klima-alaketaren aurkako borrokan edo ibilgailuak errepidetik trenbidera modu esanguratsuan desplazatzen”.

BIDAIARI GUTXI, ERRENTAGARRITASUNIK EZ

Aipatu dugun Adif-eko 2015eko azterketan hainbat aukera lantzen dira, eta horietako baikorrenean honako bidaiari kopuruak aurreikusten dira ondorengo 30 urteetarako: “2020an 3,8 milioi bidaiari, 2030ean 5,8 milioi, 2040an 6,9 milioi eta 2049an 7,6 milioi”. Bistan da 2020koa ez dela bete, azpiegitura oraindik eraiki barik dagoelako. 2030erako hipotesiak ere baditu zailtasunak: batetik, hiriburuetako geltokiek martxan egon beharko lukete ordurako, eta hori oso zaila da; horrek, aldiz, izan lezake konponbiderik, agintarien aurreikuspenetan tren lasterra behin-behineko geltokiekin hasi daitekeelako bere lehen urratsetan.

Badira zailtasun handiagoak, aldiz, 5,8 milioi bidaiarien datu baikor hori betetzeko, inguruetan eraikitzen ari diren abiadura handiko azpiegiturak ere mar-

txan egon beharko luketelako 2030erako: Burgos eta Gasteizko zatia bukatuta, Nafarroako korridorea ere bai, Madril eta Lisboaren arteko linea martxan, eta Akize eta Hendaia arteko linea ere eginda. “Horiek gabe, trafikoak askoz apalagoak lirateke”, diote ikerlariek. Edozein kasutan, inongo aurreikuspenetan ez dira iristen sozioekonomikoki errentagarritzat jotzen diren urteko 10 milioi bidaiarietara.

Munduko beste herrialdeek dituzten bidaiari dentsitatearekin konparatuta, halaber, urriak dira *Euskal Y*-aren aurreikuspenak: Trenaren Nazioarteko Batasunaren COVID-19ko pandemiaren aurreko datuetan, Frantziako bidaiari dentsitatea urteko 22 milioikoa zen; Txinan beste 22 milioikoa, eta Taiwan eta Japoniakoak 35 milioi ingurukoak. Hau da, Frantziak eta Txinak baino lau aldiz bidaiari gutxiago, eta Taiwanek edo Japoniak baino sei aldiz gutxiago.



ALDA

Gorka Bueno

“Aztertu beharko litzateke ea merezi duen aurrera jarraitzea ‘Euskal Y’-arekin”

Gorka Bueno

Bilboko EHUko Ingeniaritza Eskolako irakaslea da eta *Euskal Y*-ak eramango dituen salgaiari buruz Ekopol taldeak argitaratu berri duen txostenaren egileetakoak. Energia berriztagarriak, garraioa eta hondakinen esparrua ikertu ditu azken urteetan.

Salgaien garraioen lehen aurreikuspenak 2030erako egiten dituzue, baina proiektuaren geldotasuna ikusita, posible ikusten duzu ordurako *Euskal Y*-a eraikita egotea. Airef-ek 2020an esaten zuen oraindik inbertsioaren %58 falta zela egiteko.

Nik ez dut kristalezko bolarik, baina uste dut ez dagoela denbora nahikorik gelto-kiak irekitzeko eta, beraz, 2030ean *Euskal Y*-tik zerbait pasatzekotan, salgaiak izango direla.

Prestazio handiko trena da *Euskal Y*-a, baina Espainian eta Franzian

AHTko trenbideek ez dute horrelako prestaziorik. Irla bat da hemengoa?

Ez, Frantziako konexioa eta Gasteizkoa egiten direnean ez da irla bat izango, baina ez dio salgai asko kenduko ohiko salgaien korridoreari. Azken finean, salgaiak lrunen pasatu beharrean nazioarteko zabalerara, Jundizen [Araba] pasatuko dira, eta beraz, 200 kilometro irabaziko dira. Kontuan hartu behar da, halaber, Bilboko Portuak salgaien trafikorako portu lehorra Arasur-en eraiki duela, Miranda de Ebrotik gertu, eta harekiko konexioa trenbide tradizionaletik egiten dela. Horrez gain, pertsonen trafikoak ere joango dira *Euskal Y*-ra, baina kopuruak ez dira

hainbestekoak izango. Hori, gainera, inguruko abiadura handiko konexio guztiak bukatzen badira.

Gaur egun, ohiko trenbidean zein abiaduratan garraiatzen dituzte salgaiak?

Ez dut uste abiadura dela egungo trenbide sareetako arazorik handiena, bes-telako arazoak daude. Adibidez, Bilbotik mesetaraino heltzeko konexioa txarra da, errail bakarra dago tren guztietarako. Horrez gain, trenak ezin dira oso luzeak izan. Eta gero dago zabaleraren arazoa. Funtsean, arazoa da betiko trenbide sare-a zaharkituta dagoela, eta duela berrogei urte, trena gaurkotzeko bide gisa *Euskal Y*-a hautatu zela. Eta, beraz, orduko erabaki hark bahituta gauzka gaur egun.

Diozunetik, beraz, interpreta daiteke azpiegiturak dagoeneko ez duela alternatibarik? Agian iritzi publikoan ere ikuspegi hori finkatu da eta dagoeneko ez dago garai bateko

Salgaien garraioa korridore atlantikoan 2008-2016

Salgaiak guztira	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	Konparaketa	
	54	47,40	51,10	47,20	47,30	44,10	45,50	48,00	49,30	2008/16	2013/16
Hazkundera %		%-12,22	% 7,81%	%-7,63	% 0,21	%-6,77	%3,17	%5,49	%2,71		

Euskal Y-aren salgaien garraio aurreikuspenak 2030ean Jundizeko terminalean

(Urteko milioika tonatan)	2023	2024	2030	2040	2050
Kalkulu baikorra	0,83	0,98	1,58	3,57	4,53
Kalkulu moderatua	0,58	0,69	1,1	2,5	3,17
Kalkulu ezkorra	0,46	0,55	0,88	2	2,54

2030ean errepidetik Euskal Y-ra egunero joango diren salgaiak: **1,58 tona eguneko = 12 tren = 200 kamioi**

OHARRA: Irungo mugatik egunero 10.000 kamioi pasatzen dira.

ITURRIA: EKOPOL

mobilizaziorik Euskal Y-aren aurka.

Ez dut gertutik jarraitzen AHTaren aurkako mugimendua, baina noizbehinka iristen zaizkit Euskal Y-aren aurkako mugimenduen berriak. Gerta liteke mugimendu horrek indarra galdu izana, baina nik administrazioen planteamenduak eta kudeaketa ikusten ditut iparririk gabe. Duela aste batzuk, adibidez, Jaurilaritzako Garraio sailburuak prentsan esan zuen ez zegoela daturik Euskal Y-ak eramango dituen salgaiei buruz, baina joan den astean guk geuk argitaratu dugu azterlan bat Garraio Sailak emandako datuekin. Badirudi Garraio Sailak orain jakin duela Espainian AHTk ez duela salgairik garraiatzen, baina hori aspaldiko kontua da, eta dokumentu ofizialtan argi azalduta dago.

Bilboko Portua Euskal Y-arekin lotzeko funtsezko da Bilbo hegoaldeko saihesbide ferrobiarioa abian jartzea, jadanik duela 20 urte eraikita dagoen Serantes mendiko tunelarekin bat egiteko, baina proiektu hau ia geldidago, edo oso geldo doa. Gaur egun dauden salgaien datuekin, 2015ean egindako errentagarritasun azterketa ofizialak seguruena huts egingo luke.

Esan nahi duzu 2015ean egindako txosten ofizial horiek eta 2019an

Jundizeko salgaien geltokiaz eman diren datuen artean kontraesan handia dagoela?

Bai. 2015eko Espainiako Gobernuaren azterketaren arabera, 2030ean Burgos-Gasteiz-Astigarraga-Iruneko zatian urtero 13 milioi tona (Mt) pasatuko dira, eta 2019an egindako azterketa ofizialtan Jundizeko terminaleko 2030eko balizko salgaien datuak askoz txikiagoak dira, 1,58 Mt. Nola da posible hori?

Twitterren arkitekto batek leporatzen dizue iraganeko datuekin ezin daitekeela jakin zer gertatuko den etorkizunean.

Kritika hori egin beharko lieke 2015eko azterketa sozio-ekonomikoa egin zuten. Datuak beti dira iraganekoak eta horiekin aurreikuspenak egiten dira. Guk 2030eko garraio kalkulak egiteko administrazioaren datuak erabili ditugu, baina, gainera, haren kalkulak ekonomiaren hazkundera oinarrituta daude eta hori nahiko zalantzarazkoa da dagoen panorama geopolitikoarekin, gerra, energia krisia...

Ingurumen azterketa berria ere lantzen ari zarete.

Lehenengo ingurumen balantzea 2016an egin genuen, 2015eko datuak

erabilia, eta 2017an argitaratu zen. Geroago, Andoni Kortazarrek metodologian egindako hobekuntzekin, Espainiako abiadura handiko sare osoa aztertu genuen eta aldizkari batean argitaratu zen [The Conversation]. Eta orain, metodologia hori bera erabilia, egiten ari gara ingurumen azterketa gaurkotua. Orain Ekopoleko artikuluan erabili ditugun datuak azterketa horretakoak dira. Jakina, guri gustatuko litzaiguke, azterketa horren ondoren, errentagarritasun azterketa sozio-ekonomikoa gaurkotua egitea, baina unibertsitatearen ahalmena oso mugatua da halako azterketa handi bati heltzeko.

Ikerlari gisa, zein aholku egingo zenieke Espainiako eta euskal erakundeei?

Ez dakit, oso konplexua da, baina uste dut, egungo datuak ikusita, aztertu beharko litzatekeela ea merezi duen aurrera jarraitzea. Horrez gain, ekonomikoki errentagarria dela aterako balitz ere, klima aldaketaren aldeko borroka- ren ikuspegitik, azpiegitura honek ez du onura nabarmenik ekarriko, kontuan hartuta datozen 30-40 urteetan gizar- tea karbonogabetu behar dela. Hau da, onurak hain txikiak izanik, askoz hobea litzateke azpiegitura honek balio duen dirutza beste era batera inbertitzea. ●



DANI BLANCO

2012KO SALGAI KOPURUA ERAMANGO DU AHT-K 2030EAN

Lehenik argitu behar da Espainiako edota Frantziako AHT sareak ez daukela prestatuta salgaiak garraiatzeko. *Euskal Y*-a edo Nafarroako korridorea bai ordea, eta horregatik ofizialki presazio handiko trenbide gisa izendatzen dira. Horrek esan nahi du bidaiariak daramatzaten trenak ezin dutela 220 km/h-ko abiadura gainditu, eta salgaien kasuan 120 km/h-koa.

Garraiatuko diren salgaien kopuruak finkatzeko, eraikitzen ari diren Jundizko terminalerako Eusko Jaurlaritzak eta Adifek 2019an aurreikusitako datuak erabili dituzte Ekopoleko irakasleek. Bi egoera aurreikusten dira, eta baikorrena erabili dute. Horren arabera, 2030ean 1,58 milioi tona (Mt) salgai pasatuko lirakeke *Euskal Y*-tik.

Datu horiek beteko ote diren ere zalantzak dituzte txosten honen egileek, nagusiki bi arrazoiengatik: bate-tik 1,58 Mt horietatik 0,25 Mt kaietara doazen salgaiak lirakeke, baina horretarako Bilboko hegoaldeko trenbide saihesbidea egin behar da, zeinaren lehen zatia, Serantes mendi azpiko tunela, 2009tik bukatuta dagoen. Lau ur-

tez jardun zuten tunela egiten, 50 milioi euroko kostua izan zuen, oraindik ez da erabili, eta laburrean behintzat ez da erabiliko, hegoaldeko saihesbide hori oso geldo doalako. Bide berri hori ezinbestekoa da salgaiak Santurtziko portura iritsi ahal izateko.

Irakasleek diotenez, gainera, Bilbok dagoeneko badu portu lehor bat Arasur-en, Miranda de Ebrotik (Burgos) gertu. Horrez gain, tren autobideak ere ez dira oso arrakastatsuak izaten ari eta Jundizeko terminalerako aurreikusten diren datuen arabera, kamioz kargatutako hamabi tren bakarrik pasatuko lirakeke eguneko geltoki hartatik, edo bestela esanda, 194 bat kamioi eguneko. Hori litzateke errepidetik AHTk kenduko lukeen kamioi kopurua. Datu horren txikitasuna argi ikusten da, azaltzen denean Irungo mugatik egunero 10.000 kamioi pasatzen direla.

HIRU TXOSTEN ETA DATUEN SALTSA-MALTSIA

Azken hamarkadan nagusiki hiru txosten erabili dira *Euskal Y*-ak eramango dituen salgaiak kalkulatzeko. 2012an Eusko Jaurlaritzak *Euskal Y*-a: Herri

proiektu bat, nazioarteko konexio bat dokumentua argitaratu zuen, eta bi eszenatoki aurkezten zituen: baikorrean, urteko 3,47 Mt garraiatuko zituen, bestean 1,73 Mt. EHUko hiru irakasleek datu horiek erabili zituzten 2016ko ingurumen eraginaren ikerketa egiteko. Orduan jada, zehaztu zuten lehenbiziko aukera baikorregia zela.

2015ean Adif-ek beste azterketa bat egin zuen, aurreikuspen askoz oparoagoekin: 2020an 6,35 milioi tona eramango zituen, eta 2030ean 13,06 Mt. Zer aldatu zen hiru urte horietan taimaina horretako aurreikuspen gorakadak emateko? Ez da ahaztu behar krisi urteak izan zirela horiek, eta salgaien garraio kopuruak gora baino behera egin zuela oro har. 2016an, adibidez, 2008an baino salgai gutxiago garraiatu ziren.

Nola ulertu, orduan, gorakada hori? Inork ez daki etorkizunean tren lasterrak zein garraio kopuru eramango duen, baina badirudi Jundizeko terminalerako egindako garraio aurreikuspenak gauzak bere lekuan jartzen dituela. 2019an Adifek eta Eusko Jaurlaritzak Jundizerako egindako salgaien eskaerari buruzko txostenaren arabere-

Euskal Y-aren bidaiari kopuruak

2020	2030	2040	2050
3,8*	5,8	6,9	7,6

Bidaiarien dentsitatea herrialdeka

Euskal Y: 5,9*

Frantzia eta Txina: 22

Taiwan eta Japonia: 33

*Milaka milioi bidaiari urteko

OHARRA: Ferrokarrilaren Nazioarteko Batasunaren arabera, gutxieneko errentagarritasunaren langa urteko 10.000 milioi bidaiaritan dago. Bidaiarien dentsitatea kalkulatzeko da linearen urteko bidaiari kopurua zati lineak dituen kilometroak. /ITURRIA: EKOPOL

ra, 2016an Atlantikoko Korridoreak 49,3 milioi tona salgai garraiatu zituen (47,7 errepidez eta 1,51 trenbidez). Hau da, 2015eko Adifeko txostenaren arabera, 2030ean *Euskal Y*-ak 2016an Korridore Atlantikoak zeramatzan salgai guztien %26 eramango ditu; eta orduan trenez eraman zituenak baino zortzi aldiz gehiago. Irakasleen ustez, datuok sinestegaitzak dira, batez ere ikusten denean ekonomiak hazkunde-rako dituen zailtasunak.

Baina, argitzen dutenez, Jundizerako aurreikuspenak oso bestelakoak dira, 2019ko txostenak berak aditzera ematen duenez. Eszenatoki baikorrenaren arabera, salgaien zirkulazioa 0,83 milioi tonakoa (Mt) da 2023rako, 1,58 Mt-koa 2030erako, eta 4,53 Mt-koa 2050erako. Ikusten denez, 2030eko baikorrena 2015ean Adifek emandako datu baikorrena baino zortzi aldiz txikiagoa da (1,58 / 13,06 Mt).

EUSKAL Y-AK TRANTSIZIO ENERGETIKOA ZAILTZEN DU

Laburtuta: *Euskal Y*-ak 500 tonako 12 tren izango lituzke eguneko, hau da, 2012an Bilboko portura ohiko trenbideak (720. linea) eramaten zituen salgaien trafikoaren gisakoa. Edo bestela esanda, 2015ean egindako errentagarritasun ekonomiko-soziala eta finantzieroaren ikerketa ofizialek 2030. urterako aurreikusten zituzten 13,06 Mt-etatik %12,1 bakarrik garraiatuko duela *Euskal Y*-ak.

Datu horietatik bi ondorio ateratzen dituzte: bat, *Euskal Y*-an egindako inbertsioak zaildu egiten duela aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan egin beharreko trantsizio energetikoa; bi, agintariak aurreikuspen eskasak egiten dituztela AHTko azpiegiturretan, Espainiako Airef-ek (Erantzukizun Fiskalaren Agintaritzak Independentea) edo Europar Batasuneko Kontuen Auzitegiek dagoneko ohartarazi duten moduan. ●



Ongi etorri komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



“Egiten duzuen lan ARGIgarria eta jarduera eskertze aldera”

Orisoaindik Andonik

“Txalogarria iruditzen zaidalako egiten duzuen lana”

Hondarribitik Ainhoak

“Komunikabide independenteak, anitzak, euskaldunak eta anti-patriarkalak beharrezko ditugulako”

Bilbotik Anderrek

“Kazetaritza euskaldun, burujabe, kritiko eta feministaosatzen duzuenok modu independentean lanean jarraitu dezazuen”

Abadiñotik Luisak

“Askatasunari babes apur bat emateko”

Durangotik Mireiak

“Oso interesgarriak iruditzen zaizkit jorratutako gaiak, eta bat egiten dut hausnarketekin. Gainera, euskaraz irakurtzea plazerra izango da”

Gasteiztik Aranzazuk

“Edukiengatik, independentziagatik, zuengatik... eskerrik asko!”

Tolosatik Anderrek

BIZIKLETA BIDEZKO BANAKETA BILBON



BOTXO RIDERS

Argiaren abiaduran eta duin

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

ARGIAko kide bazara eta Bilboko Abando, Bilbo Zaharra, Zazpi kaleak, Atxuri, Castaños, Abandoibarra, Indautxu, Basurto edo Deustu auzoko bizilaguna, igual ohartuta egongo zara urriaz geroztik ARGIA bi gorpilen gainean heltzen dela zure etxera. Gasteizen, Donostian eta Iruñerrian emandako pausoei jarraika heldu da Botxo Riders banaketa kooperatiba. Lan-baldintza justuetan oinarrituta eta banaketa ekologikoaren bidez iristen gara Bilbon 200 bat etxetara.


Banaketa azkarrago egin, tokiko ekonomia sustatu eta langileen lan-baldintza duinak bermatzeaz gain, "zerbitzuen %100 CO2 bidezko kutsadura eta zaratarik gabekoa dela" bermatzen dute Botxo Riders-eko lagunek. Gasteizen Eraman kooperatibako lagunekin hasitako bide emankorrean (irakurri ARGIAren 2.690 zenbakia) beste pausu garrantzitsu bat da Bilbokoa. Lan horri esker Iruñean eta Donostian ere bizikletaz heltzen da ARGIA etxe askotara.

Ondo asko ezagutzen dituzte Glovo edo Deliveroo bezalako banaketa-enpresa multinazionalen langileek jasaten

dituzten egoera prekarioak. Han behar-rean jardun ondorengo sortutako ideia baina duintasunez banaketa-lanetan aritzeko kooperatibarena. CoopCycle Euskal Herriaren laguntza izan dute. Kooperatiben federazio hau, banaketak kudeatzeko plataforma digital bat eskaintzeaz gain – software libre eta irekian egin eta munduko hainbat lekutan erabiltzen dena –, maila lokalean sortzen ari diren eta balio politiko eta sozial bertsuak dituzten kooperatiben topagunea da. CoopCycle EH federazioaren helburua da kooperatibetako kideen arteko ezagutzak, gaitasunak eta lan egiteko moduak partekatzea, elkar laguntzeko eta antzeko kooperatiba gehiago sortzeko asmoz. Botxo Riders da federazioaren lehen proiektu koordinatuaren emaitza; izan ere, Euskal Herriko beste kooperatiba batzuetako kideek lagundu dute Bilboko kooperatiba berria martxan jartzen.

Hurrengo albisteak Iruñetik eta Baionatik helduko zaizkigulakoan gaude, beste proiektu batzuk bidean baitira, bakoitza bere ezaugarri propioekin, tokian tokiko testuingurura egokituta. ●

Tainoen ondare ukiezina



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Karibe itsasoa, 1492. Cristobal Colonen espedizioa lehenengoz lehorreratu zenean, Antilla Handien eta Txikien iparraldean bizi ziren tainoekin egin zuten topo. Taineraz taino hitzak ona, zintzoa esan nahi du eta Europako konkistatzaileei beren burua hitz horren bidez deskribatu zieten esaten zaie horrela. Baina mende eta erdian, tainoen populazioak %90 inguru egin zuen behera, nagusiki Europatik eramandako gaixotasunen erruz. Geratzen ziren tainoak akulturazio eta sinkretismo prozesuetan galdu ziren. Nahiz eta ikerketa genetikoek gaur egun oraindik haien oinordekoak badirela dioten, kultura horren ezaugarriak galdu egin ziren.

Tainoak politeistak, poligamoak eta gozogile bikainak zirela badakigu, eta aisialdia dantzan eta pilota jokoan eman ohi zutela. Baketsuak eta ohoretsuak ziren; komunitate barruko deliturik larriena lapurreta zen, eta zigorrik handiena, herrixkatik egotea. Hala ere, komunitatetik kanpo beren burua defendatzeko indarkeria ere erabiltzen zuten; Colon iritsi baino lehen ere inguruko karibee-kin gatazkan zeuden tainoak.

Haien gizartea ez zegoen oso hierarkizatua. Kazikeak ziren komunitateetako agintariak; oinplano karratuko etxeetan bizi ziren buruzagiak eta gainerako herritarrak, aldiz, oin biribileko etxeetan. Oro har, klaseen arteko aldea



AEB-KO KONGRESUKO LIBURUTEGIA

ez zen nabarmena, eta elikagaiak nahiz bestelako baliabideak bildu eta herritar guztien artean banatzeko ohitura zuten. Gainera, baliabide horiek lortzeko orduan, ustiaketa jasangarria egiten zuten; eremu jakin bateko baliabideak agortzen hasiak zirela konturatzen zirenean, beste toki batera joaten ziren baliabide bila, ustiatu berri zituzten lurren lehenegoratzeari erraztuz.

Oso erabilgarriak izan zitezkeen ikasgai horiek tainoen populazioarekin batera galdu ziren, baina bestelako ondare bat utzi ziguten. Besteak beste, kazike, piragua, kanoa, hurakan, guaiaba, makuto, Karibe, hamaka edo barbakoa hitzak esaten ditugunean, tainerazko maileguak erabiltzen ari gara eta, beraz, tainoen hizkuntza-ondarearen zati bati bizirik eusten. ●



ANTIQUITY

Gela Berdeko hegaztiak

Duela 3.300 urte inguru, Meritaton printzesa, Akhenaton faraoiaren eta Neferitiren alaba zaharrena, Tell al-Amar-nako Iparraldeko jauregian bizi izan zen. Jauregi horretan dago Gela Berdea, hormetako margolan naturalistengatik ezaguna. Egun kontserbazio egoera kas-karra izan arren, Christopher Stimpson eta Barry Kemp ikerleek beren balioa nabarmendu dute, Antzinako Egipto-

ko maisulanak izateaz gain, xehetasun errealistei esker, garai hartako fauna eta flora ikertzeko tresna ere badire-lako. Zehazki, Gela Berdeko hegaztiak identifikatzen aritu dira; egun oraindik padura horietan bizi diren artzandobiak (*Laniidae*) eta buztanikarak (*Motacilla alba*) topatu dituzte, baita basamortuko ekosisteman ohikoak diren haitz-usoak (*Columbia livia*) ere. ●



EGURRA, ERRAUTSA ETA TIPULA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Makina bat lagun damutuko da. Garai bateko etxea berriro eta beheko su bajua, ekonomika, ogi-labea eta abar kendu izanaz urrikituta entzungo dugu bat baino gehiago. Egurrekin eta ikatzarekin aurrera eta atzera ibili beharrik ez, ke usainak kanpora, kedar zikina uxa; garbitasunaren izenean sartu ziren suaren ordezkoko elektrizitatea eta gasa gure sukaldeetan. Porru-jorra ederra. Orain etorri dira hilero ehunka eurotan neurtzen diren porru-hazi ederrak. Makina bat damutu da, bai; ez dezagun, baina, zuhaitz eroria ezpalkatu.

Hala ere, negua berotzeko sutako egurra gero eta gehiago erabiltzen da; baita urte guztian ura berotzeko ere. Suak gero eta itxi, garbi eta eraginkorrak dira, behekoak bezala ekonomikak. Etxearen kanpoaldean jartzen diren galdarak ere ugaritzen ari dira.

Hiru moldetako su egurra erabiltzen da. Galdara automatizatuak ezpalarekin edota peletarekin elikatzen dira. Eskuz elikatzen direnak eta su gehienak, su egurrekin. Egurren ordezkoko erregaiak ere hedatzen ari dira, fruituen hezurak adibidez: gereziarena (*Prunus avium*), olibarena (*Olea europaea*), albertxikoarena (*Prunus armeniaca*), mertxikarena (*Prunus per-*

sica)... Fruituen hezurak ez ezik azalak ere erregai oso onak dira: hurra (*Corylus avellana*), intxaurra (*Juglans regia*), arben-dola (*Prunus dulcis*), pinazia (*Pinus pinea*) eta pistatxoa (*Pistacia vera*). Azken horiek biltzeko kraskagailuak koipeztatu behar ditugu. Egurretarako, egurgintzan ari diren egurgile eta aizkolariak ugarituko dira. Gai horien prezioak etengabeko ikaragarritzko gorakadan bizi dira azkenaldian. Hasten ahal gara mendiari eta basoari beste era batera begiratzen!

Hezur, azal eta egur erretzean errautsa da sortzen den hondakin nagusia. Errautsak ez gaitu berotuko, baina lurreko bizia bai suspertuko du. Kaltzioa du osagai nagusia, kareak bezala, eta haren lanak ordezkatu ditzake. Era berean beste elikagai batzuk ere baditu: potasioa, fosforoa, magnesioa... Denak onak lurra ongarrizatzeko.

Egurren hondarra lurrari bueltan emateko sasoiko lantxo bat: garai honetan tipula (*Allium cepa*) landatzen ari gara eta, errautsa eta urarekin prestatutako ore arin batean sustraiak bustiz gero, sustraien eta lurraren arteko ukitze azalera hazi egiten da eta landaretxoak errazago itsatsiko dira. Gero errautsak tipula elikatuko du. Eta gu. ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Noiz komeni da kimatzea geranio gitanilla? Ilbeheran egin beharreko lana dela ulertu dut, baina zein dira egun egokienak?

✍ **Ander**

Huntza geranio edo geranio zintzikaria udaberriari begira inausi behar da. Izerdi berria datorrenean. Luberritzen denean ihartutako adarrak, izotzak erretakoak eta luzeegi dauden adarrak moztu. Azken horiek bizirik badaude aldaxkak egin eta ugaltzeko erabili. Inausketa beti ilbeheran egin behar da eta ahal baduzu sustrai egunetan, ilargiaren Egutegian topatuko dituzu horiek.

Aupa Jakoba. Zer moduz? Nola kendu daiteke baratetik porruaren harra? Eskerrik asko.

✍ **Jon Kepa**

Oso zaila da honi aurre egitea. Hasteko, azken urteetan porrurik izan ez den sailean jarri landarea. Hasiera-hasieratik intsektoei aurre egiteko tratamendua egin: xaboi potasikoa, *Bacillus thuringiensis* eta Neem. Hori hamar egunetik behin eman, porruak ondo-ondo bustiz. Bestea eta eraginkorrena euliari igarotzen utziko ez dion sarea jartzea da. Sarearen begiak 0'8 mm baino txikiagoa izan behar du eta nahikoa altu jarri behar da. Hostoaren muturra ukitzen badu, saretik barrena jarri baitezake arrautza euliak.

Porruak ateratakoan kontuz non uzten diren hondakinak, hor izango baitira pupak. Oiloei eman edo erre.

DELIKA2

ARABAKO SHIITAKE EKOLOGIKOA,
HERRIAN LAN EGIN ETA BIZITZEKO AUKERA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

I ngeniaritza ikasketak egin zituen Txema Perez de Arriba arabarrak, eta urte askoan automobilgintzaren munduan aritu zen lanean. Behin eta berriz pentsamendu batek hartzen zion gogo, ordea: “Landa eremuan bizitzeko eta lan egiteko proiekturen bat martxan jartzea”, dio. Amurrio aldeko Delika herrian baserria zuten bikotekidearen gurasoek, eta horien jubilazioa Perez de Arribaren kaleratzearekin bat etorri zenean, aukera berri bat ireki zitzaion. “Mahastiak zituzten baserrian, eta horiek eredu ekologikora pasatzeko lanean hasi ginen. Hasieran, txakolinaren ekoizpena osatzeko ideia izan zen shiitakea ekoizten hastea”, kontatu du. “Osagarri” izateko jaio zen ekoizpen hura, ordea, proiektu nagusi bihurtuko zen denborarekin.

MERKATUARI PROPOSAMEN BERRIAK

Mahastigintzarekin batera barazki saskiak egiten hastea zen ekoizlearen hasierako asmoa, baina nekazaritza ekologikoko hainbat ikastarotan ohartu zen jarduera horretan hasteko ideiarekin jende asko zegoela, eta beste zerbaiti ekiteak aukera gehiago izan zitzakeela. “Guk ordurako bagenuen perretxikoak kontsumitzeko ohitura, eta shiitakea ere jaten genuen. Horrela bururatu zitzaigun ekoizten hastea”, gogoratzen du. Euskal Herria shiitakea ekoizteko leku aproposa ez zela esaten zioten hasieran askok, baina bera konbentziturik zegoenez, probak egiten hasi zen; hasieran kilo gutxi batzuk, baina, pixkanaka, gero eta gehiago.

Mahastiarekin izan zituzten zenbait arazo medio, duela zortzi urte erabaki zuten shiitake ekoizpena gutziz jar-

tzea. “Momentu honetan ni naiz proiektuko kide bakarra, baina bikoteak ere asko laguntzen dit, eta lan karga handiarekin gaudenean beste langile bat ere kontratatzen dugu”, azaldu du. Baserriko ukuilua zegoen tokian eraiki zuten shiitakea ekoizteko sala berezia, hezetasun puntu egokia zegoelako bertan. Zigilu ekologikoarekin ari da lanean. “Hasieratik argi nuen ez nuela kontserbagarririk edo antzekorik erabiliko. Perretxikoak jaso eta segituan banatzen ditugunez, ez dugu horien beharrik”, gehitu du. Hilean 350 kilo inguru ekoizten ditu, hurbileko denda ekologikoetan eta hostalaritzan saltzeko.

SUSTRATUA KANPOTIK EKARRI BEHARRA

“Onddoaz hazteko sustratu on bat lortzea da prozesuaren zatirik zailena, eta

ekologikoan egiteko, gainera, ziurtatutako egurrak behar dituzu”, azaldu du ekoizleak. Sustratua lortzeko zailtasunak medio, momentuz behintzat Pirinio Katalanetatik ekartzen ari dira. “Proiektu polita dute han, bertako basoetatik hartutako egurrean lantzen dute sustratua lau hilabetez, eta ondoren guri bidaltzen”. Ondoren, Delikako baserriko instalazioetan zazpi egunen buruan hazten zaizkie perretxikoak.

Shiitakea freskoan, konfitatuta, kontserba moduan eta krema forman saltzen dute momentuz Delika2en. Aurrera begira, baina, beste modu batzuetan eskaintzea ere bada haien asmoa, deshidratatuta eta hautsean, esaterako. Urteotan izandako erantzunarekin pozik dago ekoizlea. “Pixkanaka bagoaz shiitakearen inguruko kultura sortzen”, dio. ●



MAIATZ-EK 40 URTE

Terra nullius-ean loraturiko literatura

Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan idazten dabiltzanak saretzeko eta idazteko gogoia daukan orori parada eskaintzeko sortu zuten Maiatz aldizkaria orain dela 40 urte. Ezinbesteko tresna izan da euskal literaturarentzat: 74 aleez gain, 190 bat liburu publikatu dituzte 1982tik hona. Maiatz-en sortzaile izandako Luzien Etchezaharreta eta Itxaro Bordak eraman gaituzte 1980ko hamarkadako giro, xede eta erronketara; eta Amañur Epher eta Xan Idiart idazle baxenabartar gazteen hitzak ere gehitu dizkiegu, etxe horretako gazteenen ikuspegia ezagutzeko asmoz.

 JENOFA BERHOKOIRIGGIN  DANI BLANCO

A 4 formatuko koaderno baten itxura, osoki zuri-beltzean: atzealde beltzez, *Maiatz* eta alearen zenbakia, berriz, zuriz; eta ilustrazio bat bien artean. Horrela plazaratu zuten lehen alea 1982ko lehen hiruhilekoan, eta 40 urte pasa direla, itxura berarekin segitzen du: doi bat minimalista, sinplea, furfuriarik gabekoa. Ondokoa irakurri zitekeen 1982ko lehen hitzaurre hartan:

Aldizkari bat, gurea. Gauza batzu, denetarik, euskaraz, lantzuak. Gure literatura.

*Literatura, zertarako? Gure sendimen-
duak ez dituen bakarrik pasa bainan bizi
ditzagun. Maitasuna, lana, tristezia eta
mendiak, esperantza eta gau baten zorio-
na, euskaraz. Gureak euskaraz direlakoan.*

*Literatura guretako. Ez gauza hil bat-
tzu, ikerketa hotzetarakoak eta errautsez
bere erakustokietarakoak.*

Literatura bizirako.

Abentura literario horrek honaino eramane zituela irudikatu gabe juntatu ziren hogeitatu lagun lehen alearen inguruan, Luzien Etchezaharreta eta Itxaro Bordaren gomitari erantzunik. “Nor dabil euskaraz idazten?” galdera bien artean

“ ”

***Ez genuen Euskal
Herri polit bat
erakutsi nahi, bere
zauri eta minekin
erakutsi nahi genuen
Euskal Herria***

Itxaro Borda

jarri eta zerrenda osatu zuten ordura arte gehiegi elkar ezagutzen ez ziren bi idazleek. Erantzunean asmatu zutela ezin uka, *Maiatz 1* horretan agertzen diren andanak eraman duelako bide literarioa 1982az geroztik: kasik aurkeztu beharrik ez diren bi horiez gain, Auxtin Zamora, Jon Cazenave, Jean-Louis Davant, Daniel Landart, Aurelia Arkoxa, Henriette Aire, Emilio Lopez Adan Beltza, Eñaut

Etzamendi... baita heriotzak eramandako Manex Pagola, Mayi Pelot, Manex Erdozaintzi-Etxart eta abenduaren 9 hone-tan zendu eta obra literario aberats ezezagunegia uzten digun Txomin Peillen ere –bururaino eskribitzen ariturikoa: aurtun agerturiko *Maiatz 74*-ean kausitu ditzakegu bere azkenak, *Medikuntzaren hiztegi txikia* eta *Formica* testuak–.

Maiatzek Baionako Passemillon karrikan duen egoitzan elkartu ginen Etchezaharreta eta Bordarekin, azaroko arratsalde euritsu eta hotz batez, Etchezaharretak termostatoan kafe beroa ekarri izanaz eskertuta. 40 urteetako aldizkariak gordetzen dituzten kartoiez beterik dute egoitza. Inguruan daukan aberastasunaz jabeturik, “horiek numerizatuak dituzue, ez?”, galdetu die guztia sute batek eramaten irudikatzen duen kazetari kezkatia. Ez diote argiki erantzun –batek “ez”, besteak “zati bat, bai”–, eta arrangura hori buru giblean lotu zaio galdera zerrendari.

1980ko hamarkadan, bazen idazten zuen jendea Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan, baina modu isolatuan, komu-





nikabideetan zutabeak ala artikulua idatziz: “Azkenean antz ginen, baina ez zen gure arteko bilgunerik”. Hutsune hori betetzeko sortu zuten *Maiatz*. Euskaraz idatzitako liburuak ere arras guti ziren. Etkezaharretak oroitzen du Bordaleko unibertsitatean bideraturiko *Langue, littérature et civilisation basque* [Euskal hizkuntza, literatura eta zibilizazioa] kurtsoan eskaitzen zituztela euskarazko liburuak: “[Pierre Narbaitzen] Kattalinen gogoetak, Xaramela, Otsobiren alegiak, Tournier-Lafitten hiztegia, kasik fitsik, praktikan ez zelako euskarazko libururik denbora horretan”. *Terra nullius* batetik datozela dio Bordak. Lur hori emankorra izan zitzaizen: orotara 74 ale eta 190 bat liburu plazaratu dituzte lau hamarkadaz.

Lehen aldizkariko epilogoan irakurri zitekeen “*guk ez dugu euskara beste mintzaira baten ‘compost’ nahi. Lotsatiarrei eta mutur xurién minkortasunari ez dugu ezer erratekorik: geroa, eginez baizik ez dela egiten...*” Bidea euskaraz egin dute: “Zer da literaturarik ez duen hizkuntza bat? Horrela ezin daiteke bizi. Anitz ekartzen du literaturak”, Etkezaharretaren hitzetan. Frantsesez ere plazaratu dituzte bakar batzuk, oinarrian duten askatasun izpirituari segi, “lagunen obrak zabaltzeko libertatea harturik”.

Libertatea izan dute oinarri eta iparroratz. Jorraturiko gaietan sendi da: “Ez genuen Euskal Herri polit bat erakutsi nahi, folklorismorik ez genuen nahi; bere zauri eta minekin erakutsi nahi genuen Euskal Herria”, Bordaren hitzetan. Hunkituriko genero aniztasuna ere da horren isla, baita kausitu ditzakegun euskalkiak.

“ ” Aniztasuna ageri da, funtzionatzeko maneran ateak irekiak dira edonorentzat eta hori eskertzekoa da

Amaiur Epher

Luzaz diru-laguntzen logikatik at aritu izana eta ikuspegi komertzial huts batean sekulan sartu ez izana horri lotuak dira: “Egitura komertzial batean gastaturiko diruak emaitza izan behar du, langileak pagatu behar ditu... beste sistema bat da, guk ez gara horretan”.

“Fantasia antz eta funts guti”, horra nola aurkeztu zuen *Maiatz* Piarres Lafitte Herria astekariaren sortzaile euskaltzaleak –artetik errateko, Lafitteri egindako elkarrizketa dakar lehen zenbakiak–. Apez baten partetik izanik, lore gisa hartu zuten kritika. Baina nabardura bat egin eta Lafittek denborarekin begirada aldatu zuela ohartarazi dio Etkezaharretak Bordari: “Gure denboran bakarrik ari ginen, zuek talde bat zarete. Biba zuek”, aitortu zion noizbait Lafitte zenak.

Arrakasta handia ukan zuen aldizkariaren lehen zenbakiak: 500 ale inprimatu eta bigarren edizio bat atera behar izan zuten. “Euskaltzaleen mugimenduko emaitza zen gurea, eta ongi ikusia izan zen”. Literatura aldizkaria osatzeak inplikazio antz galdatzen zuen, ordea:

“Bospasei ginen dena egiteko; guhaurek pikatzen genuen, maketatzen, inprimategirat eramaten, metak egiten, banatzen, saltzen... Idaztetik irakurlearenganaino”.

1980ko paisaia literarioa pobrea izanik ere, giro politikoa borborka ari zen: ikastolen aldeko borrokak eramaten ziren; lehen euskal irratia agertu ziren; laborariek ere ELB sindikatua osatzea erabaki zuten; askapen borroka bizi-bizirik zen, eta parean estatuen errepresioa ikaragarri bortitza zen, GALen hilketa eta atxilotetekin. Zer erranik ez Francoren diktaduraren bihamunetan zen Hego Euskal Herrian. “Bistan dena, borrokarako literatura ez zen aski, baina hala ere, uste dut literaturak bere lekua bazuela, eta eskerrak leku hori zuela”, Bordaren hitzetan.

Euskal Herriko hiriburu guztietan literatura aldizkariak ziren garaia zen 1980ko hamarkada: *Susa* Donostian, *Ttutua* Bilbon, *Korrok* Iruñean eta *Kandela* Gasteizen... *Maiatz* gehitu zioten mapa literarioari.

1981ean irabazi zuen Frantziako lehendakariaren aulkia François Mitterrandek, aspaldiko partez eskuina galtzaileen aldean kokatuz: “Miterrandekin bazen kultura mugimendu indartsu bat, gauzak aldatzen ari ziren, eta nahi dena pentsatuko da, baina liberazio bat bezala gertatu zen orduan”, oroitu du Bordak.

1984 urtetik aitzina liburuak argitaratzen hasi ziren, Bordaren *Bizitza nola badoan* poesia lanarekin emanez hasitapena. Bi elkarrizketatuak ados dira errateko *Maiatz* ez balitz hor izan liburu gehienak ez zirela argitaratuko. Itzulpen-

Txomin Peillen gogoan

✍ JEAN-LOUIS DAVANT 📷 ZALDI ERO

Txominen ezagutzak egin nituen 1957ko uz-tail ondarrera Hazparden, euskal ikasleen elkarteak urtero bezala antolatu zuen aste beteko ikastaldian. Eskuan zuen Txillardegiren lehen liburua, *Leturiaren egunkari ezkutua*, eleberria. Gaztetik Hegoaldean asko ibili zen, gehienik Gipuzkoan, adiskide minak eginez, bereziki Donostiako Jon Etxaide, Urdatx-Santa Graziko bortuan ibiltzea maite zuena.

Txominek gipuzkeraz idatzi du zubereraz baino gehiago, Jon Mirande beste paristar euskaldunak lapurteraz idazten zuen bitartean. Irekidura horrez euskara batuaren arbasoak ditugu, Gabriel Aresti bilbotarrarekin. Hiruak lagunak ziren euskaldungoan eta literaturan, ez ordea politikan: Mirande ideologiaz beltza zen, Aresti gorria, eta Txomin elektro askea.

1964an ezkondu zen Marie-Thérèse Olivier, Perche eskualde txikiko normandiar andreare-

kin. Haurrik ez dute, baina bi belaunaldiz bizitu dira batasun onean. Alta Txomin atea zen, ez zuen ezkututzen. Aldiz emaztea katoliko suharra da. Baina biek bikote sendoa osatu dute, Abdelkader emirak proposatu "kontrarioen harmonia" ederki betez.

Azken hitza Marie-Thérèse alargunaz. Ber tokitik etorri zitzaigun 1134an Margarita Perchekoa, Nafarroari arrano beltza ekarri ziona, Monzon Gartzia Ramirez Berezarlea erregearekin ezkonduz. Marie-Thérèsek Txomini zein txori ekarri dio, ainara lankidea ote, ala bakearen usoa? Ala biak batera? Txominek badakike.



gintzak ere izan du bere lekua, hizkuntza eta mundu literario ezberdinen arteko zubitzat daukatelako biek. Demagun, Jacques Prevert handiaren *Maitasun hau (Cet amour)* euskaraturik dugu 1982ko lehen alean.

LABORATEGI BAT, NAHI DUEN ORORENTZAT

"Treibatzeko espazioa zen, jendeak testua nola hartzen zuen ikusteko aukera genuen: laborategi bat izan da *Maiatz guretzat*", dio Bordak. Anitzek plaza horretan eman izan dute lehen urratsa, ondorengatik bertan geldituz edota beste argitaletxe zein esparru batera eginez saltoa -euskalgintza, ikerketa, kazetaritza...-. Hastapenetik izan dute emakume idazleek leku inportantea *Maiatzen* -1980ko hamarkadako Ipar Euskal Herri tradizionalistarentzat ez da guti-. Etsenplu gisa, nola ez aipa Mayi Pelot, euskal zientzia fikzioaren aitzindarietakoa eta Marijane Minaberri zenak.

Idaztea ez da prozesu erraza, lana da, denbora galdatzen duena eta ariketa horretan sare bat ukaiteak urrea balio du. Etxezaharretak hori argi du: "Ahal-

duenak ez badu estimua, errespetua edota konplizitatea sendi, ez du baitezpada idatziko. Zaila da idaztea, ez da berehala sortzen den gauza bat, horregatik da inguruan talde bat ukaitea biziki inportantea". Paper hori betetzen du *Maiatzek*.

Jende gaztea, idazle hasi berriak ere badira "laborategi" horretan. Horien artean ditugu Amaur Ephre eta Xan Idiat baxenabartarrak. Epherrekin *Profeten iruzurra* izeneko lehen liburua plazaratu zuen *Maiatz*-ekin 2021ean; eta Idiatrek aldizkarian publikatzen ditu bere ipuinak (Elkar argitaletxearekin *Teresaren mendekua* lehen liburua argitaratu zuen iaz). Biek daukate ezinbestekotzat Ipar Euskal Herriko espazio literario hori: "Aniztasuna ageri da, funtzionatzeko maneran ateak irekiak dira edonorentzat eta hori eskertzekoa da", Epharren hitzetan. Ondokoa ere gehitu du: "Badu alde anarkista bat, guhaurk egiteko izpiritu hori arras gustuko dut". Horrek eskatzen duen inplikazioaz jakitun da: liburua aurkezteko azokaz azoka ibili beharra. Liburua esku artean batetik bestera ibili izana maitatu duen esperientzia gisa oroitzen du: "Trukaketa humano hori gustuko dut". Idiar-

tek ere "xantza" eta "aukera" gisa ikusten du *Maiatz*: "Enetatzat xantza bat da zeren etengabe xerkatzen dut idazteko denbora, eta ez dut beti hartzen. Aldizkarirako Luzienen [Etxezaharreta] eskaerak balio dit ene burua lanean ezartzeko eta ariketaz gozatzeko". Biek dute Etxezaharretak egindako ekarpen zabala azpimarratzen: "Literaturzale amorratua da, jakintza handikoa eta eskuzabala erabat", Idiaten hitzetan.

Elkarte batek galdatzen duen engaiamendu maila kontuan harturik, 40 urtez aitzina egin izana anitz da. Nola ez, geroari begira dira Etxezaharreta eta Borda: lekukoa hartzeko eskuak behar dituzte. Izen berriak gehitzen dira aldizkariko aurkibidean, eta horrek segidaren parte bat bermatzen die. Inplikazioarena? Jasotako "babesa" nabarmen dute bi idazle gazteek ere, eta idazterakoan zein liburua plazaratzerakoan hori ezinbestekotzat daukatela, pentsa daiteke sarea osaturik atxikitzeke eginahala eginen dutela gaurko zein biharko idazle gazteek ere. Ageriko da. Dena dela, *Maiatzek* bere baitan dakarren itxaropen airearekin lotu zaizkie hamarkada berriari. ●



LIBURUA

Zentauroak, unikornioak...



TABAKALERA

BERRIZ ZENTA URO

KATIXA AGIRRE

ELKAR, 2022

AMAIA ALVAREZ URIA

Katixa Agirre, *Amek ez dute* eleberri arrakastatsu eta gomendagarria kaleratu eta lau urtera, pandemia tarteko, sentsazio gazi-gozoak utzi dizkidan *Berriz zentauro* lanarekin dator.

Izugarri gustatu zait zientzia-fikzioa egin duen hurbilpena. Irati Jimenezek dioen moduan, euskal literaturan fantasia gutxi dago eta ongi etorriak dira horrelako ekarpenak.

Baita errealitate birtuala, areagotua eta hedatua erabilita, errealitatearen eta irudimenaren arteko mugen auzi literatura ekarri izana ere, pantailen bidezko gure bizitzari buruzko gogoeta egitera bultzatzen ditugun azalen materialitatea eta kontaktua.

Era berean, asko gozatu dut Mary Wollstonecraft pertsonaia berreskuratu duelako. Lan honetako pertsonailetako

bat da, eta bere bizitzaren gorabeherak aletuko zaizkigu protagonistaren ispilu gisa.


Sarean lehenago esan dudaz bezala, Jeanette Wintersonen *Frankisstein* lana gogorarazi dit, agian inspirazio-iturri izan dena, bertan Mary Shelley eta adimen artifiziala agertzen direlako, pertsonaia trans batekin batera. Eta azken horrekin dator zapore gazia, transaren planteamenduarekin.

Pertsonaia transaren genero identitatea deskribatzeko zentauroaren irudia darabil, eta generoaren inguruko Andrea Long Churen diskurtsoa dakar: "Generoa bestearen desiraren araberrako konstrukzioa da (...) Emetasunak emea ez denaren desioa islatzen eta espresatzen du, hortaz, emea izatea objektua izatean datza. (...) bere baitan daukan emetasunaren ukazioan baino ezin

da eraiki gizontasuna. (...) Denok gara emeak eta denok gorroto dugu".

Horren atzean gauza asko daude. Virginia Woolfek defendatzen zuen androginia (denok dugu alde femeninoa eta alde maskulinoa, eta biei eman behar diegu bidea) adibidez, baina baita Sigmund Freuden zakilarekiko inbidia eta emakumea izaki osatugabea den ideia. Edo, genero-rolak, binarismoa eta derri- gorrezko heterosexualitatearen berrespena, 'emakume izatea' ahuleziarekin eta sumisioarekin identifikatzean eta 'gizona izatea' boterearekin eta segurtasunarekin.

Nik aukeran nahiago dut Miquel Misséren diskurtsoa: transgeneritateak generoen mugak gainditu eta botere harremanen logika borrokatzen du, adierazpen eta harreman desberdinei leku eginez. ●



MUSIKA

Mirua, hegan doa zerura



XALBA RAMIREZ

2019an abiatu zuten Tolosaldean Maitane Iruñ eta Malentxo eta Matxin Zeberio anaiek Mirua taldea. Itxura batean pop elektroniko jatorra dirudienak, ñabardura eta erreferentzia beteta dakar euren lehen lana. Nabaritzen da bai, musika txikitatik daramatela zainetan.

Last Tour enpresaren Oso Polita zigiluarekin kaleratu duten EP-an batzen dituzten sei kanteak, eta lehendik kaleratu zituzten beste biek, talde sendo bat era-kusten dute. Hasiberriak diren arren, egiten dutena dakitela erakusten dutenak. *Txin txin*-en liquid drum and bassetik, oinarri houseagoa duen *Koloreek*-era.

Kiliki Frexkorekin duten kolaborazioak sintetizatzen du taldeak ematen duen poz atsegin hori: nerabe desamodio kanta, broma pare batekin, eta pare bat meta-erreferentzia speedari eta bestela-

ko sustantziei. Gaztea izatea gazte izatea da, eta natural dator orain arte kamustuta ikusi duguna.

Goxoloin<3-k badu Ariana Granderen usainik, *Thank u, next* datorkit, esaterako. Eta aizu, a ze erreferentzia. *Kuttuna*-k badu bestelako ametsezko dardara bat. Eta *Eskurik gabe*-k EP-ari ematen dio behar duen itxiera berezia.

Ekoizpenak urrea dira. Normalki ez zaizkit gustatzen sobera ekoiztuak diren lanak. Baina elektronika munduan fin ibili behar da aspergarri eta, batez ere, aurreikusgarri ez izateko. Bestelako proiektu handien alboan (demagun Merina Gris), lan honek badu etxean kozinatutakoaren usainik, baina ez horregatik zapore pobregoz. Sample eta glitch eta geruzen errege izendatzeko prest etorri da Matxin Zeberio. Ez dezagun ahaztu, bere lehenengo lanean.



MIRUA

MIRUA

OSO POLITA, 2022

Edonola, hiruek osatzen dute bat. Eta hor dago grazia. Nerabetik asko du proiektu honek, erreferentzia eta estetik. Eta hor irakurtzea gustatzen zait; xalotasun eta txolintasun puntu horretatik abiatzen dira, batzuetan esateko asko ez dutela dirudien arren, arnasa alai hartzeko kantuak eginez. Baina – eta garrantzitsua da –, ez hunkigarrismotik edo gora-bizitzatik. Hiperbolik ez da gehiago behar hyperpopean. Etorriko zaizkie esatekoak.

Lan honek apur bat ixten du Chill Mafiak irekitako zirkulu bat. Euskal-ze-ra horretan aire freskoa ez dadila izan kanpoan egiten den zerbaiten kopia hutsa. Jarrera eta estetika garaiari lotuak zaizkio, eta naturalki mugitzen dira handik hona. Gazteek badakite identitatea arma bat dela, eta behar denean aldatzen dela. ●



Inertziari uko egin, beste Bilbo bat eskaini

✂ IÑIGO BASAGUREN-DUARTE 📍 EIDER ITURRIAGA

Bilbo kolonizatuta dago. Gaboneta-ko argiek itxura are distopikoagoa ematen diote hiriko erdigunean batu den jende uholdeari. Alde Zaharretik eta Areatzatik oinez ibiltzea itogarria da, inertziaz ez bada. Babeslekuren bat egon behar da. Kolonizatutako hiri honetan periferiara joan beharra dago arnaguneak aurkitzera. San Frantzisko kalean, periferia den erdigunean, jai giroa da. Jaioterria urrun duten bilbotar ugari beraien herrialdearen futbol taldearen garaipena ospatzen ari dira. Aukera polita den arren, auzokoak ez diren eta inork gonbidatu ez dituen morroien mehatxuzko presentzia ez da batere erakargarria. Larraskituraino joatea erabaki dut, han, eraikin industrial baten babesean antolatutako diren zuzeneko emanaldiekin gozatzeko asmoz.

Orain dela gutxi ireki zituen atea Donations Project egitasmoaren lokal berriak, eta larunbat hotz honetarako

ekitaldi hirukoitza prestatu dute. Gaua irekitzearen ardura Radithor-ena izan da. A zer zaplastekoa eman digun oraindik berotzen ari ginela. Ikusi diodan emanaldirik onena eskaini du sinteekin eta horman proiektatzen ziren irudiekin jolastuz. Bilboko estratuetan arakatu du eta aurkitutako mamuak ekarri ditu gurera. Gure iragan hurbileko giro industrial gorpuztu du eta hiri hau are grisagoa zeneko paisaia sonikoak sortu ditu. Batzuetan grabeei nagusitasuna eman die, besteetan belarriak urratu eta tinpanoa zulatzen zuten soinu karrankariei. Ibaian metatuta dauden metal astunekin jolastu eta bonbak bezala erortzen ziren eztan-dekin jarraitu du. Gorenera heldu denean kolpez bukatu eta isiltasuna nagusitu da segundu bakar batez, jendea txaloka eta oihuka hasi den arte.

Hamabost minutu eskas izan ditugu arnasa hartzeko, Comando Psicográfico bikotearen emanaldia hasi baino lehen.

DONATIONS PROJECT

NOIZ: abenduak 10

NON: Larraskitu (Bilbo)

Pablo Gallo eta Iago Alvite bikotearen egitasmoa berezia da, oso. Bigarrenak sinteekin inprobistazen duen bitartean, lehenengoak itsuan marraztu eta sortutako irudiak horman handituta proiektatzen dira. Errealitatea ez dago gure alde, ohar hori bota du Gallok marrazten hasi baino lehen. Orri zurietan agertzen ziren deabruak eta forma bereziek beste mundu batetik ekarriak ziruditen. Pozoi digitala edertasun erradikala bihurtzeko gai da bikotea.

Bukatzeko Fernando Carvalho-k musika elektronikoaren historian zehar eraman gaitu: Detroiteko techno-house soinuetaatik hasita Europako hard-trance eremuetaraino. Itsasontzi batean noraezean egotearen sentsazio izan da: dibertigarria bezain arriskutsua. Izugarria izan da Larraskituko gela ilun honetatik mugitu gabe dantzarako musikaren kartografiaren zehar bidaiaitzea, inoiz bukatzea nahi ez duzun bidaia horietako bat. ●

Karlos Perez de Armiño

GOSEAREN IKERLARI



DATU-BILATZAILEEN SEGURTASUNA GOGOAN

“Duela urtebete-edo amaitu genuen taktika belikoen eta gosearen arteko lotura neurtzeko metodologia garatzen, eta harrez gero, metodologia hori herrialde jakin batean aplikatzen saiatu da Gosearen Kontrako Ekintza erakundeak. Baina ezin dut esan zer herrialde den, han dauden kideen segurtasuna arriskuan ez jartzearen. Oso informazio labaina da, kontu handiz hartzekoa, azken batean krimena delako gerra-arma modura gosea nahita eragitea, eta, beraz, eragileak nazioarteko epaitegietara eraman daitezke datu horiek erabiliz. Beraz, modu orokorrean aurkeztu genituen metodologiaren lehen emaitzak, joan den maiatzean, datuak nongoak ziren aipatu gabe”.

“Gosea erabiltzen ari dira berriz ere gerrarako arma gisa”

EHUn Nazioarteko Harremanetako irakaslea da Karlos Perez de Armiño (Bilbo, 1964), eta, era berean, unibertsitate barruko Hegoa institutuko kide ere bada. Beti kezkatu izan da elikaduraren segurtasunaz eta, azken boladan, gerrako taktikak gosearen sorreran duten eragina neurtzeko metodologia bat garatzen ibili da hark zuzendutako Hegoaren lantalde bat, Gosearen Kontrako Ekintza erakundearekin lankidetzan.

UNAI BREA HODEI TORRES

Gosearen eta gatazken arteko lotura. Gaia berpizten ari da, nonbait.

Bai, nazioartean pil-pilean dago, eta ekimen politiko, sozial eta juridikoak daude martxan. Batez ere Afrikan, Afrikako gerra zibiletan dago gaia puri-purian, baita Ukrainako gerran ere. Han, diktadura-gerrarako arma modura erabiltzen ari da gosea, eta horrek ere piztu du interesa.

Baina aspaldikoa da kontua, ezta?

Lotura argia dago gatazka armatuen eta gosearen artean, eta bereziki gerra zibilen eta gosearen artean. Azkeneko hamarkadetan, 80ko hamarkadatik edo, munduan dauden gerra gehienak zibilak dira, eta ezaugarri bat dute: populazio zibila normalean etsaitzat jotzen dela, eta, beraz, gerra-taktika asko haren kontrakoak direla.

Herritarrak zuzenean zigortzeko?

Bai. Lekuz aldatzera behartuz, baliabide ekonomikoak eta lurak kenduz... Krisialdi humanitarioak sortzen dituzten taktikak erabiltzen dira eta gerra gehien sufritzen du-

tenak zibilak dira. Beraz, batetik, lotura hori dugu: gerrek gosea sortzen dute. Eta hori frogatzen duen datua da goseteak, ez gose kronikoa baizik eta elikadura krisi zehatz eta gogorak jasaten dituzten pertsona gehienak, gatazkan dauden herrietan bizi direla. Hondamendi naturalek ere gosea eragiten dute, baina gerra da sortzaile nagusia. 2020an, elikadura segurtasun gabezia larria zuten 135 milioi pertsonen artean, 77 milioi gatazka armatua zegoen herrialdeetan bizi ziren.

Hala ere, zehazki, gosea armako gerra modura erabiltzeaz ari gara.

Bai, azken hamarkadetan nagusiki ari dira ikertzen. Izan ere, historia luzean zehar erabili den praktika bat da, baina Gerra Hotza amaitu zenetik gainbeheran zihoala zirudien; aldiz, gutxi gorabehera 2017tik ikusten ari gara berriz ere agertzen ari dela gosea gerra-arma modura erabiltzeko taktika. Urte hartan Nazio Batuek ikusi zuten bazeudela lau gosete berri eta larri, eta, lau kasu horietan, gosea arma modura erabiltzen ari zirela, nahita.



"Batuetan, taktika baino, planteamendu orokorra izaten da hornikuntza etetea. Adibidez, Sirian ezin daiteke janaririk sartu. Laguntza humanitarioa ere eteten da, eta hori debekatuta dago nazioarteko zuzenbidean".

Zein dira herrialde horiek?

Nigeriako ipar-ekialdea, Yemen, Somalia eta Siria. Lauretan, zibilen kontra erabiltzen dute, eta horrek gaiarekiko interesa berpiztu du, arlo akademikoan zein operatiboan. Arlo akademikoan, uhin berri bat eratu da gaia kontrako noranzkoan ere aztertzeko. Alegia, zer neurritan elikadura segurtasunaren alde egiten diren politikak, programak... Erabilgarriak diren gatazkak ekiditeko.

Eta arlo operatiboan?

Gobernuz kanpoko erakunde batzuk, eta NBEko agentziak, lan egiten ari dira gosea arma modura erabiltzen dutenek beren erantzukizunari aurre egiteko eraren bila. Hau da, nola zigortu daitezke eragile horiek, nola eraman nazioarteko auzitegiatar.

Nazioarteko zuzenbidean gaia ez dago ondo zehaztuta, ala?

Hori hirugarren arloa da, arlo juridiko-politikoa. Zibilei ezin zaizkie elikagaiak kendu gerretan, Genevako hitzarmenek debekatu egiten dute, argi eta garbi esanda, gainera. Indarkeria erabil dezakezu militarren kontra, baina zi-

bilen bizitza, baliabideak, janaria, ura eta osasun zerbitzuak errespetatu behar dira. Kontua da araua oso lausoa dela, eta Genevako itunak gero eta sarriago bortxatzen dira. Hartara, 2018an NBE-ren Segurtasun Kontseiluak oso ebazpen garrantzitsua onartu zuen. Batetik, aitortu zuen gosea gerra-arma modura erabiltzen ari dela. Bigarrenik, espresuki debekatu zuen. Eta azkenik, hori zigortzeko ate bat zabaldu zuen.

Ate bat.

Bai, egia da ebazpenak ez duela biderik zehazten zigorra ezartzeko, baina, edonola ere, ebazpenak eragin du gaia nazioarteko arkitekturaren organo gorenera eramatea, Segurtasun Kontseilura. Mugarri diplomatikoa izan da, Genevako Hitzarmenak dioena berrindartzen baitu. Arazoa da oso informazio urria daukagula gai horretaz. Elikadura segurtasunaren eremuan alerta goiztiarreko sistemak daude, eta informazioa jasotzeko hainbat metodologia erabil daitezke (sateliteak, tokian tokiko inkestak, uzten eta prezioen analisiak), elikadura-krisialdi bat sortzen ari den aurreikusteko. Baina sistema horiek ia

ez dute jasotzen daturik gerra-taktikei buruz, eta, batez ere, taktika horiek gosearen sorreran duten eraginari buruz. Ez da ikertu, ez dago tokiko informazio zehatzik. Eta nahi badugu krimen horiek zigortzea eta iritzi publikoa ohartaraztea, froga zehatzak behar ditugu. Horregatik planteatu zuen Gosearen Kontrako Ekintzak metodologia zehatza garatu behar genuela informazio hori jasotzeko eta datuak kontrastatzeko.

Nola eragiten da gosea gerretan?

Batuetan, taktika baino, planteamendu orokorra izaten da hornikuntza etetea. Adibidez, Sirian ezin daiteke janaririk sartu. Laguntza humanitarioa ere eteten da, eta hori debekatuta dago nazioarteko zuzenbidean.

Eta zehatzago?

Esaterako, ur-putzuak pozoituz, abereak lapurtuz edo hilez, uztak edo biltegiak hondatuz, edota pertsonen aurkako lehergailuak jarriz. Esaterako ere, landa-eremuen aurkako erasoak sarri egiten dira, kalte zuzenak eragiteko edo modu ez horren zuzenean, espekulazioa baliatuz, janariaren prezioa igoarazteko. ●

Dedalus familiaren Eguberrietako afaria

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Nik onena opa dizuet Eguberri hauetarako e, ez gaizki pentsatu. Baina errealistak izan gaitzen: asteroko sail honen izenburuak inoiz zentzu bete-betea hartzen baldin badu, egun seinalatu hauetan izaten da. Literalki gure ahalmenaren gainetik elkartu ohi gara familia deitzen diogun kolektibo horrekin egunotako otordueta. Eta familia dagoen lekuan iritzi desberdineko jendea egon ohi da. Eta hori gutxi balitz, ez dago oso entrenatuta iritzi horien elkartrukean. Eta otordua dagoen lekuan, gainera, alkohola ere egoten da. Eta labanak. Pertsona bakoitzarentzat bana, gutxienez.

Hala ere, kontua atera liteke ondo samar. Pertsonalki, ez diot inori besterik opa. Baina, berriz diot, izan gaitzen pragmatikoak: jar diezaigun helburu xume samarren bat Eguberrietan jankadanka ospatzen ditugun orgia familiarista hauei. Bete daitekeen helbururen bat, adibidez, anputazio inportanterik gabe iristea urtarilaren hasierara.

Zeren egoerak, modu marianistan esateko, direnak dira: iloba anti-espezista eta osaba ehiztaria mahai berean; trans legeari buruz iritzi bat daukan koinatua; publikoan ari den erizainari osasungintza pribatua eraginkorragoa dela esplikatuko dion lehengusu entrepreneur-a; eta azken bi urteetan eragin ez diren danbolinengatik libratu gabe utzitako bataila epikoak, noski: bateko txertoa, besteko hezkuntza-legea, hi burgesa eta hi berriz espainolista.

Ez dakit betidanik izan ote diren otordu hauetako hizketagaiak lurperatutako bonbaz jositako zelai batetik pasean ibiltzea bezalako zerbait. Aspaldi samarretik bai. 1916an publikatu zen James Joyceren Artistaren gaztetako portreta, Irene Aldasorori esker irakur dezakegu euskaraz eta, bai, igarri duzue, artikulu hau nobela gomendatzeko



aitzakia besterik ez da. Baina aitzakia justifikatua, izan ere, istorioaren momentu gogoangarrienetako bat Eguberrietako afaria baita.

Bildu zaizkizu Dedalus familiako kideak mahaiaren bueltan, hasi zaizu protagonistaren aita komentatzen ederra iruditu zaiola bere adiskide batek kalonjeari emandako erantzuna, eta berehala bihurtu zaizu eszena gerra zibil domestiko bat. Dirudienez, Irlandan orduko afari familiarrak girotzen zituen polemika Charles Stewart Parnell lider politiko abertzalearen ohe-kontuak ziren. Eta apaiz katolikoek, asuntu horiei tiraka, Parnell defenestratzea lortu zuten arte pulpituetatik eman zuten lata.

“Putasemeak!”, kargatzen du sotana-dunen kontra Dedalus jaunak. Haserrez gorriturik erantzuten dio mahaiaren bestaldetik Dante Riordanek, Dedalus haurren etxeko irakasleak, integritate katolikoa bera.

“— Hara, ikaragarria da, horratik, urte guztiko egun batean ere —esan

zuen Dedalus andreak— eztabaida izugarri hauetatik ezin libro garela esan beharra!

Osaba Charleseki bi eskuak onberatasunez jaso eta esan zuen:

— Tira, tira, tira! Ezin al ditzake nork bere iritziak, direnak direla, jenio txar eta hizkera zatar hori gabe mantendu? Penagarria da benetan.

Dedalus andreak belarrira hitz egin zion Danteri, baina Dantek ozenki:

— Ez naiz isilduko. Nire eliza eta erlijioa defendatuko ditut katoliko arnegatuek irain eta tu egiten badiote”.

Horrelako elkarriketekin jarraitzen du eszenak. Liburukoak, eta gure etxeetakoak. Dragoi bihurtzen gaituzten gaiak aldatu baitira agian, baina sakoneko jarrerak, dirudienez, batere ez. Eta Joyceren nobelatik mende oso bat baino gehiago pasa dela kontuan izanda, igual pixka bat erlaxatzeko ere aprobetxatu ditzakegu Eguberri hauetako otorduak. Hartu umorearekin, pasako da. Datorren urtera arte behintzat. ●



Egutegia 2023

Egunero efemeride bat

Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitzak edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu duten albisteak. Iraganareriko lotura gal ez dezagun eta burujabeak garenez, gure historia geuk idatzi dezagun.

Neurria: 75 x 115 mm

Prezioa 10,00 €

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**



Kamiseta txuria
Lurra herriari deika
19,5 €



Kamiseta beltza
Lurra herriari deika
19,5 €



Kamiseta gris iluna
Inor ez da ilegala
17 €



Kamiseta gris argia
Inor ez da ilegala
17 €



Kaputxadun jertsea
Inor ez da ilegala
32 €



Sendabelar baratzea
Garbiñe Larrea
14 €



Gure heroiak
Axier Lopez
20 €



Jertsea
Inor ez da ilegala
28 €



Sendabelarrekk dakitena
Garbiñe Larrea
25 €



Ilargia eta landareak
Urteko lanen agenda 2023
14 €



Egutegia 2023
Egutegia 2023
10 €



Bizi Baratzea
Jakoba Errekondo
23 €